

Pierre Vilar eta Euskal Herriaren borroka In memoriam (1906-2003)

Jokin Apalategi eta Paulo Iztueta
EHUko irakasleak

Gure oroitzapen kulturean toki bat har dezan P.Vilar-ek Euskal Herriarekiko edukitako jokabide erdi-ixil eta desinteresatuen lekukotasunak plazaratu nahi izan ditugu. Historialari zientifiko ospetsuak Espainiako Estatuko nazio eta nazionalitateak bereziki aztertu zituen. Ondorioz Espainia konfederatuaren proposamena egitera ailegatu zen. Katalunia izan zuen bere begiko ninia. Ederreste hori ezaguna da historiagileen giroetan. Baina gure lekukotasunen helbura Euskal Herriaren alde Pierrek eramandako hainbat ekimen eta aitopenek gurekiko zuten maitasuna eta konbentzimendu intelektuala ez zirela gutxiago eta eskasago agertzeko izan da. Gogora dezagun, besteak beste, *Punto y Horari* emandako elkarrizketa batean adierazi zuena: “euskal errealitatea hain da garbia, non egunen batean nazionalitate izango baita, estatu bat eskatzeraino...”.

In order for them to take a place in our cultural memory, we wanted to testify to the half-hidden, disinterested interventions of P Vilar on behalf of the Basque cause. This renowned scientific historian analysed in his own special way the realities of the nations and nationalities that make up the Spanish state. This led to his proposing a confederate Spain as a political project. He focussed mainly on Catalunya, as is widely acknowledged amongst Spanish historians. And yet our present aim is to draw wider attention to the actions and declarations which he undertook on behalf of the Basque cause, and which display no less a love nor less strong an intellectual conviction. It should be remembered that in an interview for the magazine *Punto y Hora*, Vilar declared that “the Basque reality is so clear that some day it will be a nationality, and will proclaim itself a state...”.

Udako beroaldi sapolaren ondorioz eta etxekoen zein zerbitzu publikoen asistentzia ezagatik Frantziako estatu osoan zehar hainbat adineko jende hiltzen ari zen egunetan zendu zen bere familiak hain ongi zaintzen zuen Pierre Vilar historialaria, 2003ko abuztuaren 7an, hain zuzen, 97 urte zituela. Penaz hartu genuen berria, nahiz bagenekien ondorezik zela. Isilik joan zaigu, komunikabideetan eta, batere abarrotsik atera gabe. Bizi izan zen bezala.

Espainiako eta, bereziki, Kataluniako historia garaikidean maisu ezagutua eta errespetatua izatera iritsi zen herrialde horiei buruz egindako ekarpenengatik, ikerbidean erabilitako metodoengatik eta bere estatu modernoa izatea lortu ez zuen identitate kolektibo baten izaera nazionala hain konbentzimendu handiz eta hain nabarmenki begi eman eta interpretatzeagatik. Anitzez gutxiago dakigu, ordea, Euskal Herriaz maitemindua bizi izan zela eta, berandu bederen, saio intelektual bikain batzuk ere eskaini zizkiola gure historia garaikideari.

1. Kultura-nortasun baten formakera eta ondoriozko dimentsioak

Oroimen harrigarria izaki, freskotasunez gordetzen ditu bere bizitzako urrats nagusiak Eliseu Climent editoreak katalanez 1995ean argitaratutako *Pensar historicament* lanean¹. Liburu horretako lehen atalez beste guztia, ahoz jasota transkribatua da, ikusmena galdu eta lanerako ezindua geratu baitzen 1991n. Buruz ari da, beraz, bere oroitzapenak hariltzen.

1.1. Ikasketak

Hérault departamentuko Frontignan herrian jaio zen 1906ko maiatzaren 3an, Montpellier hiri inguruko nekazari-herri txiki batean, mahastiak ugariak diren Frantziako Hegoaldean. Eskola-irakasleak zituen gurasoak eta lanbide horri zegokion etxe-giroan bizi izan zuen haurtzaroa. Herri-kanten maitale izaki, zenbait poesia ere idatzi zituen okzitanieraz batxilergoa egiten ari zen garaian. Haurtzaro eta gaztaroan, herri txikietan ohi bezala, bakean bizi izan zen, ezein iraultza-erasorik jasan gabe, adinez heltzean Frantzia handian bideak nola ireki pentsatuz. Bere aurrekoak mahasgintzan aritutakoak baziren ere, bere gurasoak arestian esan bezala maisu-maistrak izaki, bera egokiera onean aurkitzen zen goi-ikasketak egiteko. Paris zen mundu intelektualean zerbait izan nahi zutenen meka. Baita ikasteko gogoia eta gaitasuna, biak batera zituen Pierre Vilar gaztearentzat ere.

Parisen curriculum aberats baten jabe izatera iritsiko da 1920ko hamarkadan. Hiriburuko Ulm kalean kokatutako Goi Eskola Normalean (École Normale Supérieure), egun bezala orduan ere Frantziako intelektualen tenplu gisa ikusia zen ikastetxe pribilegiatuan, prestatzen ziren Frantziako unibertsitate-irakasle izatera deituak, eta Pierre Vilarrek ere bertan lortuko du, 1924-1929ko epealdian, bere prestakuntza akademikoa geografia eta ekonomian eta Sorbona zaharrean historiaren sailean. Artean Vilar ikasle gaztea da, probintziatik datorrena, lotsatia eta zalantza asko dituen, eta, hasiera hartan, ikusi eta ikasi, hori da egiten duena. Gauzak aztertzea mugatzen da, ikustera. Baina lagunarteko harremanen sarea zabalduz joaten da, eta ez bakarrik ezkerreko ikasleekin, baita kristauekin eta eskuineko beste zenbaitekin ere, sektore soziopolitiko horietako ikasleak aurkitzen

1. Gaztelaniako itzulpena: *Pensar históricamente*, Crítica, 1997, Barcelona.

baitziren GENen. Alderdi sozialista batean eman zuen bere izena, alderdi komunistan ere bai nazismoaren garaian, baina kasu bietan alderdiko militantea izateari uko egin zion, lehentasuna bere egiteko intelektualari emanaz. Militantismoa laguntza maila pertsonalean eginez praktikatu zuen, bihotz-zabaltasun handiz ere, asko izan baikara Sena ibaiaren ondoko bere etxean hartu izan gintuenak. Gogoan dugu oraindik Quai de la Rapée karrikako 102. zenbakian zeukan azken solairuko etxebizitza hura, ezker-eskuin dena liburuz josia.

1.2. Lehen irakasle-lana eta gerrak

Hirugarren zikloan sartzean, bere tesi-zuzendariak horrela aholkatuta, Bartzelonara joatea erabaki zuen 1927ko irailean. Bartzelonan bi egonaldi luze egin zituen, guztira 22 urte, lehendabizi 1927tik 1936ra, eta gero 1945etik 1957ra. Doktoresia lantzen aritu zen bitartean, gerra aurrean (1934-36) eta ondoren (1945-57) Bartzelonako “Cervantes” Institutu Frantsesean eman zituen eskolak. Espainia oso barrutik ezagutzeko aukera izan zuen, eta oso garai desberdinetan gainera, Errepublikaren garaian eta Frankorenean.

Bederatzi urteko etenaldi horretan, jakina denez, bi gerra gertatu ziren, Espainiakoa 1936an eta bigarren mundu-gerra 1940an, eta parentesi horretan gertatuek beren zigilua utziko diote. Lehenengoak Katalunia uztera behartu zuen, baina kanpotik modu aktibo batez lagundu zien errepublikar intelektualari “Cervantes” Batzordearen bidez. Bigarrenengoak, ordea, zuzen-zuzenean ukitu zuen Pierre Vilar eta ondorio sakonak utzi zizkion, azken batean Pierre izan, frantses hiritarra baitzen eta ikusi ere, halaxe ikusten baitzuen bere burua. Frantziako armadatik deia jasota, Pierre Vilar 1939ko abuztuan atera zen Alsaziarako bidean. Hara iristean, eskolan erakutsi zizkioten irudi patriotikoak pasatzen zaizkio buruan hara eta hona, gaztetan irakurritako pasarte antimilitaristak etortzen zaizkio gogora inguruan bonben dunbotsak entzuten dituen bitartean. Tristeziak aitortzen du frantses armadako ofizial gehienek Pétain mariskalaren naziekiko politika kolaborazionista onartzen zutela. Sentimendu kontraesankorrek inarrostean dute. Kolonialismoaren sinbolo gisa, frantses uniformeaz jantzitako soldadu beltzak ikusten ditu lurrean zerraldo gorputza balaz josita dutela. Naziek 1940ko ekainean atxilotuko dute, armadan hamar hilabete egin ondoren, eta geroztik bost urteko gatibualdia ezagutuko du Alemanian, Polonian eta Austrian, 1940ko uztailaren 16tik 1945eko maiatzaren 1a arte. Bere emazte eta semearekin gutun bidez mantenduko ditu harremanak. Ihes egiteko asmoak porrot egin eta, azkenean, aliatuen garaipenak zabaldu zizkion etxera itzultzeko ateak. Parisen dago langile-eguna ospatzen den egunean.

1.3. Idazle eta gatibu

Kontzentrazio-esparruetako egonaldia lan intelektuala egiteko erabili zuen. Han ereindako hazitik sortuko da *Histoire de l'Espagne* liburutxoa (1947). Barnealdi luze hartan, preso batzuek eskola batzuk autoantolatu zituzten eta berari eman zioten historiak azalpen batzuk egiteko ardura. Talde polita biltzen zen bere inguruan, 30-50 bitartekoa, horien artean ingeles-talde bat, ikasteko interes handia agertzen omen zuena. Berak luzaro pentsatu izan zuen eskola haiek emateko apunte gisakoak eskura oinarri bibliografikorik izan gabe prestatu izan zituela. Baina uste okerreanean zegoen, gero egiaztatu baitzuen Rafael Altamira historia-lariaren *Historia de la civilización española* izeneko tomoez bederen baliatu zela,

liburu horien azalean nazien kontzentrazio-esparruko zigilua eta liburu-orrietan Vilarrek berak orduan eskuz idatzitako albo-oharrak baitatuz. Ezin pentsa zezakeen eskolak emateko prestatu zituen apunte haiek hain sona handiko argitalpena izatera iritsiko zirenik. Aski kasualitatez gertatu bide zen horrela. Parisko PUFek, *Que sais-je?* bildumarako, frantses hispanista bati eman zion Espainiaren historiari liburutxo bat idazteko enkargua, baina horrek, minbiziak hartuta, bere burua ezindua ikusi zuenean, hil aurreko azken hilabeteetan, Gabriela Berrogain euskaldunarekin, Vilarren emaztearekin, aurkitu zen Parisko Biblioteka Nazionalean, eta zein egoeratan zegoen azaldu eta gero, enkargua bere senarrari pasarazteko proposamena egin zion. Baita onartu ere, nazien kontzentrazio-esparruan prestatutako apunteak orraztu, egunean jarri eta argitara emateko parada egokia izan zitekeela pentsatuz. Horrela argitaratu zen 128 orrialdeko liburutxo hori, bost ataletan sailkatuta. Argitalpen horrek eragina izan zuen —ez nolana haikoa—, gerra ondoko Espainiako elite intelektualaren artean, egile marxista eta errepublizalea izaki, frankista ez zen beste ikuspegi bat eskaintzen baitzuen arazo espainolaz, askoz ere orekatuagoa, irekiagoa eta kritikoagoa, belaunaldi berrikoentzat oinarritzakoa izango zena 1950eko hamarkadaren bukaeratik aurrera. Espainiaren askotariko aurpegiak ikuspegi sintetiko ederra eskaintzen du, zenbait puntutan desmitifikatzailea, historialari askoren ustez. Arazo nazionalaz ere ari da 112. orrialdean, Kataluniaz eta Euskal Herriaz, zehazki, frantsesezko 1971ko 3. argitaraldian.

Baina badirudi Frantziako inguru historiografikoan mesfindantzarik sortu zuela argitalpen horrek. Izan ere, Armand Colin argitaletxeak argitaratua zuen Rafael Altamira-ren *Epítome de historia de España*, arrakasta handia izan zuena, gainera, eta Lucien Fèbvre handiak, zehazki, nahiz eta bere onarpena izan, ez zuen ulertzen zergatik zetorren berri hau, lehengoa —Alicanteko liberalarena, alegia— ongi idatzia eta argitaratua zegoela jakinda. Vilarrek, antza, gero jakin zuen susmo horren zergatia.

Liburu horrek Espainian izan zezakeen arrakastaz ohartuta, Ariel argitaletxeak gaztelaniaz isilean argitaratzeko erabakia hartu zuen 1966an. Argitaletxeokoek Librería Española-ko Antonio Soriano mitikoarekin egile-eskubideak garbitu eta gero, plantxak egin eta koadernatzeko dena prest zegoela beste tailer batean, bertara polizia agertu eta tirada osoa eraman zuen eta argitaletxeok, legez kontrako sustaketa egiteagatik, salatuak eta juzkatuak izan ziren Auzitegi Gorenaren aurrean. Zigortuetako bat, Pontón jauna izan zen. Hau, Franco hil eta gero, Crítica argitaletxea bideratu bezain laster, hasiko da Pierre Vilarren lanak argitaratzen. Horretarako, Parisera joan eta, Juan Grijalboren diru-laguntzarekin Antonio Soriano-ri egile-eskubideak erosten dizkio eta haren lanak bata bestearen segidan etorriko dira, hala nola, lehenik, *Historia de España* 1978an, gaztelaniaz, gero *Historia d'España* katalanez, 1984an, eta ondoren besteok: *Iniciación al vocabulario del análisis histórico* (1980), *Hidalgos, amotinados y guerrilleros* (1999), *La Guerra Civil española*, hori gaztelaniaz eta katalanez. Azken argitalpen horiek salmenta ona izan zuten, esaten denez 45.000tik gorakoa. Baina zabalkundean gailurra jo, *Historia de España*-k jo zuen, 430.000 ale baino gehiago saldu zirela kalkulatu baita. Garai hartan Espainia osoan gehien saldu zen liburua da, seguru asko, eta Espainiaren historiari buruzkoetan irakurriena. Frantsesez, gaztelaniaz eta katala-

nez argitaratutako hiru bertsiok batera hartuta, milioi aletik gora saldu zirela kalkulatu zuen egileak berak².

Pierre Vilarrek Espainiako historiaz argitalpen gehiago ere baditu, hala nola “Patrie et Nation dans le vocabulaire de la guerre d'Indépendance espagnole” (1971) eta “Mouvement ouvrier espagnol et questions nationales: Quelques réflexions préliminaires” (1984) izeneko artikulak eta *Crecimiento y desarrollo* bilduman datozen atal batzuk. Beharbada, *Hidalgos, amotinados y guerrilleros* liburuan (1999) jasotzen dira Espainiaren historiari buruz egindako lanik onentsuenak, zeinetan lau aro historiko desberdinetako gertakariei dagozkien arazoak harrotzen baitira. Kapareen aroan Felipe II.aren Espainia aztertzen da; Ilustraziokoan, XVIII. mendeko Espainiaren gizarte-egiturak; Independentziakoan, Frantziaren kontrako independentzi gerrari buruzkoak; Nazionalitateenean, azkenik, Espainiako gizarte-egiturak eta nazio-arazoa ulertzeko hurbilketa metodologikoa eskaintzen da.

1.4. Doktore-tesiaren emaitzak

Berak amesten zuen Espainia konfederatuaren barruan, bere elkarrizketetan behin baino gehiagotan adierazi izan zigun bezala, Katalunia zuen bere begiko ninia. Normala, bizi ere, han bizi izan zen eta. Hango gizarte-errealitatea ezagutu ere, beste inor gutxik bezala ezagutzen zuen. Frantzian zegoenean ez bezala iritsiko da ulertzera zertan zetzan katalan fenomenoaren muina, hots, nazionalismo katalana, garai hartako Espainia plurinazionalaren baitan. Frantziatik zekartzan eskemak bazter utzi eta, bertako arazoan sartuz, katalanismoa barrutik aztertzen hasiko da. Katalanek ere, dena esan behar da, oso harrera ona egin zioten eta nahiko laster egin zituen lagunak. Antza, Henri de Mann belgiarraren *Más allá del marxismo* liburua lagungarri gertatu bide zitzaion klaseen eta nazioen arteko gizarte-gatazkak aztertzeko eta, bidenabar, eta harreman gatazkatsu horien atzean ezkututzen den identitate sozialaren arazoaz gogoetak egiteko.

Pierre Vilar Katalunian egin zen ofizioz historialari, bere doktore-tesiari esker. Bere maisulana *La Catalogne dans la Espagne moderne. Recherches sur les fondements économiques des structures nationales* izeneko lan erraldoia da, hamar urte behar izan zituen lana amaitzeko eta Parisen argitaratu zen hiru tomotan 1962an. Bertan Kataluniak Espainia modernoan izan zuen eragina aztertzen da eta bertan, lan-metodo gisa, datu geografiko eta ekonomiko oparoak erabiltzen dira. Ikerketa-lan zaindu eta sakona da, egun ere adituentzat kontsulta-iturri ezinbestekoa. Zalantzarik ez da, Vilarren lan horrek aro berri bat irekitzen duela Kataluniako historiografian. Handik gutxira, Max Cahner katalanistak, gerora Jordi Pujol-en gobernuan kulturako kontseilari izango denak, katalanera itzultzeari ekingo dio berak zuzendutako Edicions 62 argitaletxean, *Catalunya dins l'Espanya moderna* izenarekin. Itzultzen ari ziren bitartean, ordea, jatorrizko testutik berrehun ale sartu eta banatu zituen katalanisten artean ezagutua izan zedin eta, horrela, bidean zegoen katalanezko itzulpenak giro egokia izan zezan. Lau tomotan argitaratu zen 1964-1968ko epealdiaren barruan, urteko tomo bat merkatuan jarritz, eta 1984rako jadanik lau argitalpen eginda zeuden. Katalanezko bertsiok hori Vilarrek berak berrikusi eta datu berriak sartu zituen. Frantzian ere, 1970eko hamarkadaren bukaeran, lan

2. Vila-Sanjuán, Sergio (2003): *Pasando página*, Destino, Bartzelona, 564.-568. or.

horren bertsio murriztu bat egin zen, oharrik eta dokumenturik gabe, eta hori bera katalanez argitaratu zuen Curial argitaletxeak. Gaztelaniazko bertsioa, *Cataluña en la España moderna* izenarekin, 1977an agertuko da, Crítica argitaletxearen eskutik, hau ere, beste aurrekoak bezala, Bartzelonan.

Pierre Vilarrek berak esanda dakigu, *La Catalogne dans la Espagne moderne* izenburua daraman lanak Frantzian ez zuela aparteko sonarik izan. Esan liteke oharkabean pasatu zela, beste arrazoien artean, nazio-arazoa garai hartan zerbait arrotza zelako hango intelektualentzat. Bere tesia juzkatu zuten epaimahaikoen-tzat, badirudi katalan nazionalitateari buruzko gai hura zerbait periferikoa zela, funtsean erregionala, eta, egileak berak kexa-keinuaz adierazi bezala, ez bide ziren ohartu, antza, ezta mahaiburu izandako Ferdinand Braudel bera ere —nahiz eta handik lau urtera aipamen oso gozo eta beroa egingo dion—, ikerlanak zeraman azpituaren garrantziaz, zeinak honela baitzioen: *Recherches sur les fondements économiques des structures nationales*. Azken batean, nazio-fenomenoaren hondoan oinarri ekonomikoak aurkitzen zirela, alegia. Beraz, aztertzen zuen gaia arras zentrala zen, ez batere periferikoa.

Katalunian bertan ere, Vicens Vives-en eskolakoen salbuespenarekin, beste hainbat intelektualek hoztasunez hartu zuten lan hori. Katalanistak izan ziren berotasunez eta sinpatiaz irakurri eta bere neurrian balioetsi zutenak. Jakina, besteak beste, lan horretan arazo katalana harrotzen zelako. Geroztik ere, Pierre Vilar historialariaren ikerlan gehienak Kataluniaren historiari buruzkoak edo, Espainiaz jardutean, haren erreferentzian egindakoak izan dira. Horren lekuko dira argitaratu zituen lanak, hala nola “Catalunya i Espanya davant la invasió francesa: resistencia y ‘nació’, practica i conceptualizació” (1973), “Procés històric i cultura catalana” (1983), “Reflexions sobre els fonaments del fet català” (1983), “El concepte de Països Catalans vist per un historiador” (1984).

Orokorrean, Katalunian, Pierre Vilarren lana estimu handian hartu izan da, eta diogunaren adierazle dira 1980 eta 1990eko hamarkadetan zehar egin zitzaizkion omenaldiak unibertsitate-mailan eta hainbat kultur erakundetan. Bertako Jaume Vicensekin batera³, katalanek Pierre Vilar okzitaniarra daukate Katalunia modernoaren historialari nagusitzat. Eta are garrantzitsuagoa dena, bere ondotik fidelki jarraitzen dion eskola utzi zuen, besteen artean, Jordi Nadal, Emili Giralt eta Josep Fontana-k gidatzen dutena. Azken horrek, bere *Introducción al estudio de la historia* liburuko hitzaurrean (1999, 14) aitortzen duen bezala, Vilarren metodologia dauka eredutzat, zeina, asko laburtuz, gizarte-errealitatea oso-osorik historiaren ikuspegitik aztertzeraz mugatzen baita, haren *Pensar históricamente* saioan azaltzen den bezala. Vilar Katalunian presente dago. Bere eskola eraikita joan zen. Baditu jarraitzaile sutsuak.

3. Vilarrek gerra aurretik zuen jada Vicens Vives-en ezagutza, baina elkarren arteko harremanak Bartzelonako Institut Française-ra 1945ean itzuli zenean eta, bereziki, Parisen 1950ean egindako Zientzia Historikoen Nazioarteko Batzarrean sendotu ziren, han elkartu baitziren. Batzar hartan gurutzatu zituzten lehen aldiz haien iritziak zenbait joeratako historialariek, positibistek, Annales-eko eskolakoek, marxistek, etab. Vicens, antza, harriturik geratu omen zen ikustean nola Vilar eta Eric J. Hobsbawm marxistek goraiatzen zuten “La guerra dels Remenses” gai aztertzearen bidez (Riquer, B., “Pionero, maestro, hito fundamental”, *La Vanguardia*, 2003-08-14, 27.-28. or.).

2. Euskalduntasunaren aldeko grinadunen artean eragile nekazina

Eta Euskal Herrian, zer? Gatozen gure etxera, Gabriela Berrogain emaztearekin batera, hark eman baitzion ezagutzera Euskal Herria. Ezagutu eta maitatzera. Hanka bat Parisen eta bestea Lukutzeko “Montero” baserrian zutela bizi izan ziren senar-emazteak.

2.1. Emazteagatik eskolatua

Gabriela emaztea ere han izaten zen solasaldietan. Hazparnen sortua zen 1904an. Berrogain sendia arras ezaguna da Iparraldean oihal, mahai-oihal eta ohe-oihaletan espezializaturiko saltoki-saretxo bat dutelako barnealdean, kostaldean eta baita Landetan ere. Bere gurasoak ez ziren hortik bizi. Gabriela andere fina eta maitekorra zen. Haurtzaro lehenean, euskal kultura espresio patrimoniale-tan bereganatua zuen, nahiz eta nerabezaroan —ikasketen aro nagusian, alegia—, frantses kulturari hezia izan. Bordele eta Parisen artean, hain zuzen. Hala ere, behin ere ez zuen ahaztutzat eman haurtzaroan bizi izandako giroa. Horren lekuko, euskal kantutegiari zion atxikimendua. Gurekin bezala bere bilobekin zegoelarik, egokiera zetorkion bakoitzean berritzen zuen hori. Laket ikusten zen horrelakoetan. “Montero” baserria erosiz geroztik ez ziren geratzen irakasleek uda partean bezala urtean zehar izan ohi zituzten oporraldietan bertara etorri gabe. Udaz hainbat aldiz Zuberoako pastoralak ikustera joaten zen sendi osoa. Pierre Vilar bera txundituta aritzen zen pastoral emanaldiak komentatzen. Horretarako bete-betean zetorkion zuberotarrek alde zurretik gina izaten zuten testuen erdarazko itzulpena.

Ikasketa nagusiak Bordelen egin eta gero, Gabriela Parisko Sorbonako École Nationale de Chartes erakundean inskribatu zen eta historiaren jakintza laguntzaillean espezializaturiko artxibozain-prestakuntza burutu zuen. Curriculumean paleografia, diplomazia, arkeologia eta abar zituen landu beharrekoak, gehi historia, literatura eta hizkuntza disekatuena zein biziena. Pierre Vilar ezagutu aitzinetik argitaratua zuen 1930eko *Anuario de Historia del Derecho Español* aldizkarian, “Documento para el estudio de las instituciones políticas de Navarra durante las dinastías de Champagne y de Francia” lana. Frantses gobernuak enkargatuta, 1931tik 1936ra eta 1945etik 1948ra, Aragoiko Koroaren Artxiboan lan egin zuen. AKAn zegoen Napoleonen okupazioari buruzko dokumentazioaren inbentarioa burutu zuen eta gaur egun Parisko Artxibo Nazionalean aurkitzen da. Lan horietariko batzuk argitaratuak izan ziren, hala nola “Un document des Archives d’Aragon sur un épisode militaire de la guerre de cent ans⁴, *Guide des recherches dans les fonds d’enregistrements sous l’Ancien Régime*⁵ eta “Jean II et le Monastère de Montserrat au lendemain de la pacification de Catalogne, 1474”⁶.

Gabriela Berrogainek eta Pierre Vilarrek elkar ezagutu zuten Madrilen, Argüelles-en irudiaren aitzinean, izan zen 1930eko abenduan. Nola bata hala bestea Casa de Velázquez erakundean zeuden urte hartan. Pierrek kontaktzen digunez, “elkar ezagutze hark ez zuen txisparik eragin, fletxazorik ere ez, baina, bai,

4. *Hommages à A. Rubio i Lluç. Miscelania d’estudiis literaris, històrics i lingüístics*, vol. III, Barcelona, 1936, 475.-479. or.

5. Imprimerie Nationale, Paris, 1958.

6. *Estudios dedicados a Agustín Duran y Sampere en su LXXX aniversario*, XVI, III, 1970.

berehala jakin-minetan konbergentzia, sorprenditzeko eta sorprenditua izateko nahi berdina, sentsibilitate berdina, konplizitate intelektual handia. Eta, batez ere, bata besteari erakutsi beharra, bikaina, biek urrats berean”⁷. *Catalunya dins l’Espanya moderna* doktore-tesia aipatzen genuen bakoitzean, Pierrek behin eta berriz azpimarratzen zuen Gabrielarengandik jasotako laguntzaren handia, dokumentazioa biltzeko lanetan, bereziki.

Pierre Vilarrek erretiroa hartzean, maizago etortzen eta luzeago egoten hasi ziren Lukutzeko etxean. Etxe zoragarri hartan giro bikaina egon ohi zen. Gabriela eta Pierre beren bizitzako garai hartan alai bizi ziren. Hala ere, beren historiarekin leial, Euskal Herriaren borrokaz bihotz-bihotzez eta osoki interesatzen ziren. Behin batez, Maite eta biok Garrutzeko herritik haiekin promenari ibili ginen ohiko zuten herriko jatetxera bazkaltzera joan aurretik. Eta bertan, karrika nagusian zegoen etxe baten aitzinean geratuta, mirespenez esan ziguten: “Zuok beharbada jakingo duzue, baina etxe honetan bizi omen zen Txikia (Eustakio Mendizabal) poliziak Algortan erail zuena”. Haren emazteaz, haurrez eta lagunez arduratsu galdetzen ziguten zertan ziren jakin-minez. Euren bizitzako hainbat une latzetan bizitakoagatik, bazekiten zer zen borroka politikoan hiltzeraino bizia eskaintzearen balioa. Adin goxoko bikote-bizitza hura, ordea, hoberenean zegoenean Gabriela-ren heriotzarekin amaitu zen. Gogoratzen dugu, hura hil eta hilabete geroago, nolako gutun sentibera eta omentsua jaso genuen Apalategi-Idirin sendian, Pierrek idatzita, haren heriotzaren ingurukoak kontatuz. Hitz gutxitan esanda, harenganako urrezko bihotza eta bakezko oroitzapen gozoa isurtzen zitzaizkion gutunean. Areago oraindik, Gabrielak Pierrereren erabakietan zuen zerikusia adierazteko, biziki argigarria da, 1980an, Jokin Apalategiaren *Los vascos de la nación al estado* liburuaren epaiketaren kariatara, *Punto y Hora* aldizkarirako kazetariak Madrilan egindako elkarrizketan aitortua. Ea gaur egungo euskal errealitate sozial, ekonomiko eta kulturala ezagutzen dituen galdetzen diolarik, hauxe erantzuten dio: “Gutxi ezagutzen dudala onartu behar dut, eta sakonki murgildu beharrean nagoela eginkizun horretan, zeren *Historia de España del siglo XX* nire liburua abian jarria baitaukat”. Asmotan zeukan, beraz. Montero etxeko sutondoan, Gabriela beti zirika aritzen zitzaion, gu aitzinean ginen bakoitzean, esanez: “Pierre, egia da, gauza anitz idatzi duzula Espainiaz, baina ezin zintezke egindakoarekin konforma, oraino zerbait garrantzizkoa geratzen zaizu egiteko, Euskal Herriaz lan funtsezko bat idaztea, alegia. Gabrielak bizitzen jarraitu izan balu, agian, helduko zen Euskal Herriari buruzko lan mardul hura burutzerara. Baina, Gabriela desagertu ondotik haren eztenkadatxoan faltaz gain, bista larriki galtzen joanak ere izan zuen horretan kulparik.

Euskal Herriak urte haietan zeraman borrokaren jarraipena egiten zuela argi eta garbi aditzera ematen du, halaber, Jokin Apalategiri 1980ko maiatzaren 5ean idatzitako gutun batean. Urte hartako bazko-astearen amaieran, Maite eta Jokin Montero etxera joan ginen, garai horretan ia urte haietan guztietan ohi bezala. Oraingoan, bide batez, Pierrerekin arazo jakin bati buruz mintzatzeko asmoz ere bagindoazen. Kontua zen Pako Letamendiak (Ortzik) diputatutza utzi eta, Parisa itzuli nahi zuela doktore-tesia egitera, eta eginkizun horretarako Pierrereren laguntza nahi zuela. Bazekienez gu Pierrereren lagunak ginela, galdera hori luzatzeko eskatu zigun. Baina zorte txarra ukan genuen bidaia hartan, Pierre ez baikenuen aurkitu

7. *Pensar históricamente*, op. cit., 113. or.

ahal izan Lukutzeko bere etxean. Orduan, apirilaren 27an, gutun bat igorri nion Parisko bere etxera, Ortziren gogoia eta asmoak agertuz. Maiatzaren 5eko bere gutuna horri erantzutera dator. Hara zer dioen:

Pena handia hartu dut Maite eta zu Monterotik pasatu eta ez ninduzuela bertan aurkitu jakin dudanean. Gustu handienez onartuko nuke Ortziren tesia zuzendari bezala eramatea, berarekin betidanik hain ados aurkitzen bainaiz. Maleruski, erretiratuta nagoenez, ezin dut doktore-lanik zuzendu. Baina konpon naiteke neure adiskideetariko batekin, eta ikus genezake izena emateko eta geroago epaimahaia osatzeko modu egokiena zein izango litzatekeen. Inskribatuz gero, askatasun handia baitago, zuk ongi dakizunez.

2.2. Euskal jakintzan trebatua

Gure Parisko unibertsitate-ikasketak bukatu eta gero, batez ere, Donapaleuko ingurumariak ederki bistaratzen ziren Lukutzeko mendi-gaintxo hartan hamaikatxo solasaldi eginak gara, sukaldeko mahaiaren inguruan, hartaz eta honetaz mintzatzten. Parisen ezagutu genuen irakasle profesionala —goi-mailako giro akademiko hartan oso humanoa, humanorik bada—, Monteron irakasle gizona barnetik ezagutzeko parada izan genuen, eztabaiden harian hainbat gaitan sakontzeko bidea ireki zigun, hainbat urtez, hil arte esateko, harreman estuak izan genituen. Euskal Herriko gertakizunak hurbiletik segitzen zituen, politikoak eta ekonomikoak bezala kulturalak. Arrasateko kooperatibak ikustera joanda, harrituta itzuli zen hango martxarekin. Antzeko harridura agertzen zuen Iparraldeko Lurberri kooperatibarekin ere. Sarritan aipatzen zituen, —eta laudorioz—, J. M. Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena, Alberto Onaindia, Alfonso Otazu⁸, eta gehiagoren izenak. Sevillako kalonjeak —Olaso ezagunak— bere autobiografia noiz argitaratuko zain egon zen aldi batez, Gernikaz zer berri ekarriko irrikaz⁹. Interes berezia zeukan, orduan berarekin gai horretaz doktore-tesia egiten ari baitzen Herbert R. Southworth iparamerikarra, *La destruction de Guernica. Journalisme, diplomatie, propagande et histoire* izenarekin Parisen argitaratua 1975ean¹⁰.

2.3. Borroka gizatiarretan partzuer

Baina Pierre Vilar irakaslearekiko gure harremanak, Iparraldean baino lehenago, Paristik zetozenak ziren. Burgosko prozesuaren inguruan, zehazki 1969-1972ko epealdian, Soziologia egiten ari ginen Vincennes-en kokatutako Paris-VIII

8. Bere garaian hain eztabaidatua izandako *El igualitarismo vasco: mito y realidad* liburuaren egile hau (Txertoa, Donostia, 1973) sarritan joaten omen zitzaion ikustera Lukutzeko etxera. Berak esanda jakin genuen nolako sarbidea izan zuen Loiolako Artxiboan bere lana egiteko.

9. Gernikako bonbardaketaz bere lekukotasuna *Hombre de paz en la guerra* liburuan ematen du, "Gernika" izeneko atalean (Ekin, Buenos Aires, 1973, 237.-229. or.).

10. Gaztelaniazko bertsioa, *La destrucción de Guernica. Periodismo, diplomacia, propaganda e historia*, Ruedo Ibérico-k berak argitaratu zuen 1977an, hau ere Parisen. Lan hau, Walter L. Bernecker adituak dioen bezala, maisuki burutua da: "A lo largo de la guerra civil, se intensificó la discusión político-propagandística, ya que todo este debate está magistralmente analizado en la obra de Herbert Southworth (...) El estudio se basa en documentos del archivo diplomático del 'Foreign Office' inglés, en algunos (aunque pocos) documentos alemanes relativos a la Legión Condor y los papeles de la Agencia Havas, conservados en el Archivo Nacional de Paris, aparte de haber consultado una extensa bibliografía y muchos periódicos ("Cincuenta años de historiografía sobre el bombardeo de Gernika", in Tuñón de Lara, M. (zuz.) (1987): *Gernika: 50 años después (1937-1987). Nacionalismo, República, Guerra Civil*, Argitarapen Zerbitzua, EHU, Donostia, 226. or.).

unibertsitatean eta, aldi berean, EPHEn (L'École Pratique des Hautes Études) diplomaturako mintegiak egin genituen, Paulo Izuetak Pierre Vilarrekin, Historia sailean, eta Jokin Apalategik Alain Touraine-rekin, Soziologia sailean. Garai hartan, nazio-arazoarena gai bero-beroa zen Parisko gune akademikoan. Bestalde, 1968ko Maiatzeko iraultzaren ondotik, Paris-VIII unibertsitatean bildu ziren irakaslerik aurrerakoienak, horien artean ospetsu batzuk ere bai. Irakasle izan genituen artean, besteak beste, Michel Foucault, François Chatélet, Nicos Poulantzas, P. Francastel, Michel Lowy, Alain Badiou, Paul de Gaudemar, Georges Lapassade, René Lourau eta beste hainbat aipa daitezke. Hura ezkertiarren inurritegi bizia zen. Troskistek, batez ere, han zuten eraikia beren erresumatxoa.

Garaiak ere giroa berekin baitakar sarritan, gizarte-zientzietan marxismoa zen nagusi, han bederen, zenbait kasutan, teoria bat gehiago izatetik harago, zientziaren kategoria gisa hartua zena. Mugimendu nazionalisten haize-boladak ere gogor astintzen zuen hiriburuko intelektualitatea. Estaturik gabeko nazioen arazoak puri-purian zeuden hexagonoan bezala penintsulan, berdin Irlandako Iparraldean. Ezkerraren norabidea gehienbat joera desberdinetako marxismoak markatzen baitzuen, orokorrean beren burua marxistatzat zeukaten mugimendu nazionalistek klasismoarekin egin zuten talka eta hortik eratorriko dira lehen etenak, baita ezker abertzalean ere. Horrekin adierazi nahi duguna da —ETAkoak Burgosen epaituak izan zireneko garai haietan, bereziki 1970eko hamarkadaren hasieran—, nazio-arazoa zela eta, sekulako eraso ideologikoa jasan zuela ezker abertzaleak. Nazionalismoa eta klasismoa nola ezkondu marxismoaren argitan, hori zen argitu beharreko arazo nagusia. Marxismo klasikoak ba ote du erantzunik mugimendu independentista baten aurrean? Autodeterminatzeko eskubidea aitortu, bai, baina zertara mugatzen da maila estrategikoan?

Harrigarria badirudi ere, arestian esan bezala, nazioarena gai bedeta zen, gehienetan marxismoari lotuta agertzen zena. Vincennes-en Soziologiako Lizentziaturarako egindako kredituetan, adibidez, bi “Le nationalisme et la question nationale” gaiak egin genituen, Nicos Poulantzas eta Michael Lowy irakasleak bata bestearen segidan emanak. Orobat, Pierre Vilarrek, 1951z geroztik, Raspail kalean kokatutako EPHEn ematen zituen bere mintegiak Historia Sozialaz, eta gu han entzule izan gintuen hiru ikasturteetan zehar (1969-1972), hain zuzen, “Classe et nation” gaiak aritu zen. Leku berean irakasle zen Georges Haupt-ek ere arazo nazionalaz eman zituen bere mintegiak. Kasualitate hutsa izango zen ala ez, baina ezin esango da nazio-arazoa modan ez zegoenik garai hartan. Ordukoak dira gai horretaz argitaratutako liburu aipatuenak ere, hala nola Maxime Rodinson-en *Le marxisme et la nation* (1968), Georges Haupt, Michael Lowy eta Claudie Weill-en *Le marxistes et la question nationale*, eta geroxeago, Nicos Poulantzas-en *L'état, le pouvoir, le socialisme* (1978), hiruak gaztelaniara itzuliak izan direnak.

Dena den, nazio-arazoarengatik, bereziki horregatik, erbestetu berri ginenontzat aukera-aukerako bazka zen hura guztia, gose baikinaren gai horretaz teorizatzen zenaz jabetzeko. Pierre Vilar bera da EPHEko mintegi haietako parte-hartzaileen berri ematen duena:

Durante años hemos trabajado en ello en nuestro seminario de la 'Ecole des Hautes Etudes', con oyentes colaboradores de Europa, los Balkanes, Oriente Medio, Africa del Norte y, sobre todo, de América Latina, sin olvidarnos de Francia y España.

Acogiéndonos también al origen de mis propias aportaciones, hemos examinado los casos catalán y vasco, los más agudos en un pasado próximo, y de un presente aún agitado. El tema lo merecía, creo¹¹.

Harekin egindako hiru ikasturte haietan (1969-1972), gutxi gorabehera, hogeiren bat ikaskide elkartuko ginen, Hego Amerikakoak ez gutxi, arabiar batzuk ere bai, eta Euskal Herritik bosten izenak bederen gogoan ditut: Emilio Fernández Pinedo eta Luis Maria Bilbao, beren tesiak Euskal Herriko ekonomiaren historiari Pierre Vilarrekin egiten ari zirenak¹², Martin Etxeberria eta Jose Maria Larramendi entzule gisa zeudenak. Nik, neure aldetik, *Marxisme et question nationale basque* izeneko tesina aurkeztu nuen Diplomaturarako¹³, baina onarpenik gabe geratu zen, epaimahaiko batek, George Haupt-ek zehazki, marxismoaren nazioarekiko interpretazioan bere desadostasuna agertu zuelako. Eta hau esatean, Pierre Vilarrek berak bere garaian ahoz aitortua idatzira pasa besterik ez dut egiten. Ordurako jakin banekien Pierre Vilarrek ere bazituela erreparatzen lan horri zerion tesi nagusia oso-osorik onartzeko, bertan sostengatzen baitzen marxista klasikoentzat, kolonia lurraldeetako askapen-mugimenduetan izan ezik, mugimendu nazionalistek buruzko ikuspegi teorikoa zein jokabide praktikoa, azken batean, arazo taktikoetara mugatzen zela, baita teoriarik aldarrikatutako autodeterminatzeko eskubidea bera ere. Pierre Vilarrek, emana etorri zitzaion erabakiari irtenbide akademiko egokia bilatu nahirik, gizatasun osoko intelektuala baitzen, behin eta berriz dokortesia harekin egin nezan eskatu zidan, lan hori oinarritzat hartuta, hain zuzen, eta Sorbonan. Baina nola ordurako hitza emana nion Paul de Gaudemar-i berarekin egiteko Soziologia sailean, eta, gainera, ez gai horretaz, euskal kleroaren soziologiari baizik, han geratu ziren elkarrizketa administratibo haiek, baina ez akademiakoak, *Sociologie du phénomène contestataire au Pays Basque Sud: l'exemple du clergé basque (1940-1975)* dokortesia egiteko orduan ohar interesgarriak egin baitzizkidan. Guretzat, nola Paulorentzat hala Jokinentzat, ohore bat izan zen bera izatea epaimahaiko lehendakaria gure dokortesien defentsarakoan.

2.4. Ebaluaketetan neurtua

Arestian esan bezala, Parisko ikasketak bukatu eta gero, Pierre Vilarrekin harremanak izaten jarraitu genuen bere azken urteak arte. Sarritan joaten gintzaiz-

11. Intxausti, Joseba: "Historia, Nación y Nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar", in *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, II, EFA-Jakin, 1985, 533. or.

12. E. Fernández de Pinedo-ren tesia 1974an argitaratu zen, *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850* izenarekin (Siglo XXI, Madrid). J. M. Bilbaoren *Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII* izenekoak, 1979an argitaratu zen *Historia del Pueblo Vasco* bildumaren barruan, II. tomoan (Erein, Donostia). Bi historialari horiek badute batera egindako beste lanik ere, izenburutzat "Auge y crisis de la siderometalurgia tradicional en el País Vasco (1700-1850)" daramana, *La economía española al final del Antiguo Régimen. II manufacturas*-en argitaratua 1982an, Madrilen. Horiek dira —ordukoez ari gara—, Euskal Herriaren historia ekonomikoaren azterketari dagokionez, Pierre Vilarren jarraitzailetzat har daitezkeenak.

13. Testu hau bere jatorrian euskaraz idatzia da, atal batzuk Jokin Apalategik eta beste batzuk Paulo Iztuetak. Tesina gisa aurkezteko moldaketa batzuk egin genituen eta frantsesera itzuli. Artean ez baikeunden behar adina trebatuak hizkuntza horretan idazteko, laguntza handia eman zigun Edurne Alegriak itzultzen eta zuzentzen, orduko lanak gaur hemendik eskertzen dizkiogunak. Jatorrizkoa Baionan argitaratu zen, 1974an, *Marxismoa eta nacional arazoa Euskal Herrian* izenarekin, eta Paulo Iztuetak egindako gaztelaniarazko bertsioa, berriz, Zarautzen, 1977an, *El marxismo y la cuestión nacional vasca* izenarekin.

kion bisitatzera Montero etxaldera eta han, udako zein neguko oporretan etortzen zelarik, solasaldi luzeak izaten genituen. Beti ateratzen zen nazio-arazoaren kontua orokorrean, eta, bereziki, Euskal Herriaren egoerari buruzkoa. EPHEn aurkeztutako testu hura gaztelaniaz *El marxismo y la cuestión nacional vasca* izenarekin argitaratzeko prestatu genuenean, hitzaurre bat egin zezan eskatu genion, baina, 1977ko apirilaren 24ko gutun honetan datorren bezala, bere ezina jendetasunez agertuz erantzun zigun:

He intentado ver si podía escribir un prólogo al mismo tiempo bastante pensado, no obstante crítico, y naturalmente amistoso y capaz de ser políticamente útil. Y confieso que no me parece posible redactarlo a tiempo. Es una cosa que tendría que ser muy meditada, y casi tan larga de comentarios como los que da Vd sobre los textos escogidos. Me parece, pues, que es más razonable abstenerse. Al fin y al cabo, mi opinión no importa tanto, en un momento donde todo está cambiando, de una manera que a mí me decepciona bastante, pero que no sé cómo se tendría que orientar. Perdóneme, pues, la pequeña decepción que le ocasione así. Si hubiéramos tenido la suerte de encontrarnos en Montero —una cuestión de horas, sino de minutos— tal vez hubiéramos podido encontrar una fórmula. Pero el hecho es que yo tampoco había tenido tiempo de reflexionar mucho, habiendo tenido que redactar mas intervenciones en dos coloquios recientes, y necesitado muchísimo más tiempo por eso que lo que pensaba. Si llego a tener al teléfono al amigo Apalategui, le explicaré también los obstáculos que me impiden preparar con bastante seriedad un prólogo como el que teníais la amabilidad de pedirme¹⁴.

Hor ageri bezala, berak nahi zuen bezalako hitzaurre zehatz eta landurik egiteko ez zeukala aski beta esanez desenkusatu zen. Eta egia zen. Gure liburua 1977an argitaratu zen, udako partean, eta hurrengo urtean, Pierre Vilarrek artikulu luze eta mamitsu bat argitaratu zuen *Historia 16* aldizkarian “Sobre los fundamentos de las estructuras nacionales” izenarekin¹⁵, frantsesez 1981ean emana¹⁶, eta hor azaltzen du, beste inon baino argiago eta zehatzago, nazio-arazoari buruzko bere ikuspegia, gutunean agindu bezala, aski kritikoa —zorrotza—, marxismo klasikoaren tesi batzuk zalantzan jartzen dituztenekiko, horiek batzuetan aipatu beharreko iturriak aipatzen ez zituztelako eta, beste batzuetan, interpretazio desegokia —testuinguru historikoan ez behar hainbat oinarritua— egiten zutelako. Mingarri egiten zaio zenbaitek Stalin-en izena gai honetan aintzakotzat ez hartzea, ez bada iraintzeko, Richard Pipez amerikarrak bezala, edota testu hautatuetan haren 1904ko testu famatua ez agertzea. Eta azken salakuntza hau egitean, 6. oin-oharrean, hain zuzen, *El marxismo y la cuestión nacional vasca* liburua aipatzen du, esanez, Haupt, Lowy eta Weillen *Les marxistes et la question nationale* liburuan ez bezala, gurean garrantzi handia ematen zaiola aipatutako testu horri, horrekin aditzera emanez Stalin ere aditua izan zela gai horretan. Bera, funtsean, Stalin-ek nazioaz emandako definizioarekin geratzen da eta, halaber, Lenin-ek sail horretan markatutako politika-estrategiarekin. Pierre Vilarren artikulu hori da, uste dugunez, gure libururako prestatu nahi izango zuena. Hor idatzita agertzen den aipamen hori lehendik ere ahoz adierazia zigun elkarrizketa batean.

14. Paulo Iztuetari egindako gutuna, Paristik Basaurira.

15. *Historia 16*, Extra V, abril 1978, 5.-16. or.

16. “Reflexions sur les fondements des structures nationales”, *La Pensée*, 1981, janvier-février, 46.-64. or.

2.5. Sartre-ren informatzaile

Parisko garai hartatik badugu gogora ekarri beharreko beste oroitzapenik. Burgosko Prozesuaren inguruko garaiak ziren, garai larri eta estuak ETako auzipe-tuentzat eta, orokorrean, zapalkuntzaren mehatxupean bizi zen Euskal Herri osoa-rentzat. Auzipetuak heriotzatik salbatu, herri-borrokek eta nazioarteko protesta-oihartzunek salbatu zutela esan izan da. Mezu horren adierazle da, besteak beste, Gisèle Halimi andereak 1971n argitaratutako *Le procès de Burgos* liburua. Argital-pen hori une honetan sonatua egiten bada, batez ere ezker abertzaleen munduan, Jean Paul Sartre-ren hitzaurrea dakarrelako da. Testu hori egiteko mandatua eta hori burutzeko materiala, ETA VI-Asanbleakoen zuzendaritzatik ateratakoa dela idatzi da *Zutik* 61. zenbakian egiten zaion oharrean¹⁷. Beste nonbait, berriz, bitar-tekaritza egin zuena Beltza izan zela ere irakurri izan dugu. Horren berri izatean, kasu bietan, gure harridura handia izan zen, hitzaurreako dokumentuak Gisèle Halimi-ri bere etxean eskura eman genizkionak gu izan baikin, Pierre Vilarrek hala eskatuta. Egun batez, EPHEko mintegi-orduak bukatzean, beragana deituta, ikasgelako baztertxo batean, Gisèle Halimi abokatuak ETA erakundearen eta horren inguruko dokumentuak biltzeko eskatu ziola eta, lan hori egingo al nuen galdegin zidan. Euskal arazoari buruzko material hori Jean Paul Sartre-arentzat zela ere jakinarazi zidan. Bera omen zen Hamili abokatuak Burgosko Prozesuaz prestatzen ari zen liburuari hitzaurrea egin behar ziona. Ez dakigu egileak berak bere aldetik zer-nolako materiala emana izango zion, baldin eman bazion, edo beste norbaiti ere zerbait eskatu zion ala ez. Oinarrizko materiala bildu eta, Jokin Apalategi, Maite Idirin eta hirurok joan ginen Sena ibaiaren ondoan, etxebizitza dotore batean, bizi zen Halimi abokatuarengana. Rue de l'Université-ko 174. zenbakian geratu, bigarren estaira igo eta txirrina jotzean, artoski hartu gintuen feminista gisa ere garai haietan aitzindaria zen andere abokatuak. Bertan utzi genizkion, besteak beste, honako testu hauek: Zunbeltzen *Iraultza* (1968) eta F. Sarrailh de Ihartzaren *Vasconia* (1962) eta *La cuestión vasca*, Masperok argitaratutako *Batasuna: La répression au Pays Basque* (1970), *Enbata Cahiers*, eta, batez ere, ETA erakundearen aldizkari adierazgarrienak, hauen artean *Zutik* 57. zenbakia, Julien Madariagak egina 1970eko urrian.

Giséle Halimi-k berak bere etxean izandako elkarrizketan esana da J. P. Sartre-ri hitzaurrea egiteko eskea Jose Antonio Etxebarrietaren bidez etorri zitzaioa, horri hala eskatu ziotelako Burgosko auzipetuek. Beraz, eskea etorri, ETako auzipe-tuengandik zetorren, eta nola auzikoan elkar ezagutu zuten J.A. Etxebarrietak eta G. Halimi-k, azken horrek egin zuen bidea J.P. Satre-rengana iristeko. Hau da, guk dakigula, egina izan den zubi-lana. Bidenabar, esan dezagun Hamili-k lilura ziola J.A. Etxebarrietari. Nonbait txundituta utzi zuen Burgosko epaiketan. Berataz esker oneko baten diskurtsoa egin zigun. Agurtzerakoan, J. P. Sartre-rekin zuzenean egoteko aukera jarri zigun aurrean. Guk, gazte inozoak izaki, ez genion eskaintza hari jaramonik egin.

17. "Traducción íntegra del prólogo de Sartre al libro de Gisèle Halimi, El Proceso de Burgos de Editorial Gallimard. Lo curioso del caso es que tanto el pedirle el prólogo como el suministrarle datos para el mismo había sido obra de la dirección de VI. El resultado no pudo ser más satisfactorio para ambas partes, pero en sentido contrario, claro. ETA, encima, compró unos miles de ejemplares para su distribución" (*Documentos*, tomo 12, Hordago, 1981, 228. or.).

2.6. Eztabaida zientifikoen eragile

Arestian aipatutako EPHEko mintegi horiek astean behin izaten ziren, bi ordukoak. Pierre Vilarrek berak egin ohi zuen gaiaren azalpena lehen zatian eta, bigarrenean, eztabaidatu egiten zen normalean entzuleen artean. Entzuleak, bestalde, bitarikoak ziren: entzule hutsak batzuk, eta mintegi-zuzendariarekin doktore-tesiak edo tesinak egiten ari zirenak beste batzuk.

EPHEn Pierre Vilarrekin egindako hiru ikasturte horietan zehar, uste dudanez 1972an, luxuzko gonbidatua ekarri zuen Pierre Vilarrek mintegira, Nicos Poulantzas soziologoa, hain zuzen, argitaratu berria zuen bere *Fascisme et dictature* liburua-ren inguruan eztabaidatzera. Egun hartan ikasgela murreraino bete zen, goimailako topaketa intelektual hark erakarrita. Jokin Apalategi eta Maite ere han ziren egun hartan. Maila handiko eztabaida izan zen, beroa baina errespetuzkoa, eta beti arrazonatua. Ordukoa gogoan, hau idatziko du handik zortzi urteko pasarte honetan:

Pienso en mi malogrado amigo Nicos Poulantzas, con quien discutía mucho pero a quien apreciaba de veras, y cuya ausencia me duele. Un día le recriminamos amistosamente, en uno de mis seminarios, por haber introducido del siguiente modo su trabajo sobre el fascismo: 1) no se puede tratar sobre el fascismo sin conocerlo bien históricamente; 2) no existe ninguna historia válida del fascismo; 3) no obstante, voy a escribir, voy a elaborar 'la teoría' del fascismo"¹⁸.

Horrelako planteamendua lan-hipotesi gisa egitea, zilegi izan liteke, agian, baina ez inola ere arazo horretaz esateko denak esanda daudela eta, beraz, metatutako ezagutzaren gainean teorizatzerik badela. Prozedura horri antihistorikoa deritzo Pierre Vilarrek eta, hain zuzen, alderdi horretatik kritikatu dituzue behin eta berriz greziar erbestetuaren ikerlanak. Marxistek nazio-arazoak egiten duten interpretazioen gainean zehazki, *L'état, le pouvoir, le socialisme* laneko zenbait pasarte zorrozki kritikatu dituzue. Zergatik? Horko pasarte batzuetan zalantzan jartzen duelako nazioa zein estatu modernoa merkataritzako burgesiak sortuak izan direla kapitalismoaren hasieran¹⁹ eta, marxismoan nagusitu izan den tesi horren kontra, hain zuzen, berak nazio modernoaren oinarrian lurraldea ezartzen duelako²⁰, Pierre Vilarrek (1980, 7) iturri historikoetan oinarritu gabe egiten dituela baieztapen horiek aurpegiratzen dio:

Siempre resulta divertido —por simpático que nos caiga su esfuerzo— ver cómo alguien atribuye sus propios defectos a los demás, cómo coloca al inmovilismo donde no está y cómo propone la confusión como rigor. Treinta y dos páginas sobre

18. Poulantzas, Nicos: *Fascisme et dictature*, Seuil, Paris, 1970.

19. "L'analyse qui en est donnée en termes de classe est calquée sur cette explication: la nation, tout comme l'Etat moderne, serait la création du capital marchand, remontant à la bourgeoisie marchande des débuts du capitalisme. Je schématise, mais à peine: il s'agit là d'une tradition dominante, extrêmement tenace, dans le marxisme" (Op. cit., PUF, Paris, 1978, 105. or.).

20. "Le développement inégal du capitalisme est lui-même cosubstantiel, dans sa dimension spatialisée, à cette morphologie discontinue, l'expansion du capital cosubstantielle à cette topologie à orientation irréversible, l'impérialisme au sens moderne cosubstantiel à ces frontières-là. Le prémisses du territoire comme élément constitutif de la nation moderne sont inscrites dans cette matrice spatiale capitaliste" (Ibid., 115. or.).

'la nación y el Estado' sin nombrar un solo Estado y ninguna nación quizá sea un tour de force teórico, pero yo prefiero el marxismo histórico²¹.

Honentzat, bistan da, bazen merkantilismoa Erdi Aroan, egun den bezala, baina sistematizatu XVI. eta XVIII. mendeetan egin zen. Eta merkantilismoa da, Marx baitan, kapitalismoaren oinarritzko elementua. Hau da historialariak soziologo teoriakoari ematen dion erantzuna, gu hemen aipatzera soilki mugatzen garena. Areago oraindik, nazioari buruzko teoria marxistarik ez dagoela esatea, Poulantzas-ek dioen bezala²², arinkeria hutsa da Vilarrentzat, "frívolo tratamiento del tema"²³, alegia, aro garaikideko historiografiak besterik frogatzen baitu:

Hubo el gran debate 1904-1913, la guerra del 14, la denuncia de las traiciones de la socialdemocracia, la construcción de la URSS, la guerra de España, la resistencia 'patriótica' al fascismo, las liberaciones coloniales (¡Vietnam!, Cuba, el Che), y ¡todavía ha sido subestimada la 'realidad nacional' por los marxistas! ¿No guarda, pues, relación la teoría con la práctica?²⁴.

Vilarrek azken pasarteok Poulantzas hil aurreko urtean idatziak ditu eta, agerienez, EPHEn hasitako eztabaidaren segida gisa hartzekoak dira.

2.7. Ezbeharrean laguntzaile

Ez bat eta ez bi, ezustean, 1979ko abenduaren 19an, nire *Los vascos, de la nación al estado*, frantsesezko *Nationalisme et question nationale* doktore-tesiaren egokitze-liburua, Hegoaldeko liburu-dendetan bederatzi hilabete haietan saltzen ari zena, Ricardo Varón Cobos magistratuak, 1. zenbakiko Epaitegiko Instrukziorako epaile zentralak sinaturiko auto baten bidez, terrorismoaren apologia delituaren akusaziopean jarri zuen. Ordurako zazpi mila aletik gora salduak ziren, eta urte horretako apirillean, liburuaren egunaz Donostian egiten den liburu-azokan, Gipuzkoako liburu-denden Gremioak azokako liburu salduenaren Zilarrezko Euskadi saria emana zioten. Niri, liburuaren autoreari, baldintzarik gabeko behin-behineko gartzela-zigorra, eta Jose Fermin Jaka Auzmendiri, Elkar SA argitaletxeko zuzendari kudeatzaileari eta liburuaren inprimatzaile eta zabaltzaileari, berrogeita hamar mila pezetako fidantza ezarri zizkigun magistratuak. Defentsarako abokatutzat, Miguel Castells —orduan senatorea— hautatu genuen, eta haren lehen urratsa, 1. zenbakiko Epaitegiko Instrukziorako epaile zentralari 1980ko otsailaren 1ean igorritako gutun baten bidez, Jokinentzat behin-behineko askatasuna eskatzea izan zen, pentsatzen baitzuen, horrela jokatzuz gero, Epaitegira libreki hurbildu ahalko zela eta beharrezko adierazpenak eta frogak aurkeztu ahal izango zituela. Aipatutako magistratuak, 1980ko otsailaren 14an sinatutako gutun baten bidez, gure abokatuaren eskaria onartu egin zuen eta, horrela, Jokinen aurka emana zegoen "aurkitu eta atxilotzeko" agindua altxatuz, Iparraldetik Madrila joateko aukera eta,

21. "Sobre los fundamentos de las estructuras nacionales", *Historia 16*, op. cit., 10. or.

22. Pasarte hau hartzen du harenetik: "Le dernier cas auquel je vais me référer est celui de la nation. Cas complexe s'il en est, qui concentre en quelque sorte l'ensemble des apories d'un certain marxisme traditionnel. Il faut se faire à cette évidence: il n'y a pas de théorie marxiste de la nation. Dire qu'il y a, malgré les débats passionnés à ce sujet au sein du mouvement ouvrier, sous-estimation par le marxisme de la réalité nationale est encore beaucoup trop faible" (*L'état, le pouvoir, le socialisme*, op. cit., 102. or.)

23. "Sobre los fundamentos de las estructuras nacionales", *Historia 16*, op. cit., 12. or.

24. *Ibid.*

orobat, otsailaren 25ean Dorremocha Aramburu prokuradorearen aitzinean aurkezteko agindua jaso nuen. Madrilen Doctor Ezquerdo karrikako 22. zenbakian, 4. solairuko ezkerrean, bizi zen Fernando Salas abokatuak lagunduta, Madrilgo Epaitegi Zentraleko hitzordura aurkeztu nintzen. Dena nahi bezala atera zen. Behin-behineko askatasuna eman zidaten.

Baina ez zen hor amaitu gertakizuna. Prozesuak aurrera jarraitu zuen. Ondorioz, jokoan zegoenaren defentsa prestatzeari ekin genion berehala. Terrorismoaren apologia egitea bizkarreratzen zitzaien liburua doktore-tesi bat zenez gero, Miguel Castells abokatuak, tesian parte hartu zuten unibertsitateko pertsonalitatei lekukotasuna eskatzea pentsatu zuen. “Haiek kolaboratuko balute biziki ongi litzateke”, zioen. Hasteko, Pierre Vilar historialariari —tesia epaile-lanetan lehendakariaren ardura eduki zuenari, hain zuzen—, idatzi nion pentsatutakoaren berri eman ez. Idatzi banion idatzi, dena bere kontura hartzen zuela eta lasai egoteko esanez erantzun zidan. Handik gutxira, 1980ko martxoaren 20ko datarekin, bizirik jarraitzen zuten (ordurako Nicos Poulantzas mahaikidea hila baitzen) hiru lekukoren adierazpenez hornitutako gutunak jaso nituen. Bakoitzaren argudioetatik nabarmenenak hona ekarriko ditugu. Pierre Vilarrek honela dio berean:

Paul de Gaudemar-en zuzendaritzapean egindako doktore-tesi hau Parisko Unibertsitatearen aitzinean aurkeztean, nire lehendakartzapean epaitu genuen. Eta ekartzen dituen euskal arazoari buruzkoan agertzen dituen zehaztasuna eta ideien berritasuna kontuan hartuta eta haren ezagutzarako modu emankor batez lagungarri dela iritzita, gertakizunaren ikasketa serio bat bezala agertu zitzaigun. Frantses aburu unibertsitarioa edonolako publikazio bat debekatzen delarik artega jartzen bada, anitzez gehiago haserretuko litzateke Parisko Unibertsitateak analisi historiko baliagarri bezala baikorki eta gorai patuki epaitutako lan baten autoreak kondena jasoko balu.

Alain Touraine-k beste hau dio:

Lan hau arras interesgarria da eta euskal mugimendua eta egoera ezagutzeko benetako ekarpen bezala kontsideratua izan da. Onartezinezkoa egiten zait liburu hau, behintzat nik ezagutu dudana puntuan hartuta, terrorismoaren apologia bezala aurkeztua izan dadin. Autorearen sentimendu pertsonalek bederen ez dute eragotzi ezagutza-mailako lana izatea.

Paul de Gaudemar-en lekukoan hau irakurtzen da:

Nire harridura agertu nahi dut tesi hau, lehenik frantsesez argitaratua izan den hau, espainolezko bertsioan ‘terrorismoaren apologiaz’ salatua izan delako, hor, soilki eta aldi berean, Euskal Herriko nazio-arazoaren aurkezpena, analisisa eta kritika egiten baita, eta ez beste ezer. Esanari erantsi nahi diot, gainera, duela urte anitz ezagutzen dudala Jokin Apalategi, doktore-tesiarri ekin aitzinetik Lizentziako eta Tesinako ikasletzat eduki bainuen, nik bereziki zuzentzen nuen ‘Hezkuntza eta kulturaren soziologia’ sailean. Ikasle bezala, nola bere ahal intelektualengatik hala bere ikaskideekin eta irakasleekin zituen harremanengatik, Jokin Apalategiren zintzotasun bikainaren lekukotasuna eman nahi dut.

Honela 1980ko ekainaren 2an, Pierre Vilarri gutun bat igorri nion ondoko termino hauetan:

Zuk zeuk, Paul de Gaudemar-ek eta Alain Touraine-k idatzitako gutunei esker, nire liburuen kasua kudeatzen ari den fiskalak nire aurkako akusazioa "behin-behineko bertan behera uztea (sic)" erabaki du. Baina fiskalak berak aipatutako deklarazio horretan berean dio liburua, hots, doktore-tesia terrorismoaren apologia dela eta, ondorioz, zigortu beharrekoa, hala den bezala hori argitaratu duenaren ekintza ere, eta azken honentzat zazpi hilabeteko gartzela eskatzen du. Hori guztia horrela izanik, Miguel Castells abokatuak zuri (oraingoz, eta hasteko zuri bakarrik, baina geroago Paul de Gaudemar-i eta Alain Touraine-ri ere bai) prozesu-garaian Madrila lekuko bezala etortzeko aukeraz kontsulta egiteko eskatu dit.

Eta gutun berean beste hau ere jartzen nion:

Prozesua abenduan izango litzateke, eta lekuko bezala etortzea onartuko bazenu, joan-etorriak hegazkinez egiteko txartelaren eta hotelaren gastuak ordainduko genizkizuke. Ekintza-mota hau gauzatzea funtsezkotzat dauka Miguel Castells-ek, uste baitu, unibertsitateko tesia izanik, eredutasun nabarmena ukan dezakeela Espainian gaur egun adierazpen-askatasunaren aurka irekita dauden hainbat prozesu-kasuren aurrean.

1980ko ekainaren 28an EPHETik igorritako gutun batekin erantzun zidan Pierre Vilarrek. Besteak beste, ondoko hau dio:

Anitz denbora pasatu badut ere, ekainaren 2ko zure gutunari erantzuten, ez da izan ahantzia nuelako. Bien bitartean lan anitz ukan dudalako baizik: ekainaren 1etik 10era hirugarren zikloko sei tesi, estatuko bi tesi (hamalau liburuki) azken hiru egun hauetan pasarazi baititut, (eta okerrera falta zait oraino). Hautagaiek berandu ekartzen dituzte eta dena presaka irakurri beharra gertatzen da. Bestalde, epaiketa abenduan izango dela esaten didazunez, patxadaz hartu dut zuk egindako galderari eman beharreko erantzuna. Eta tesietako baten okasiaz Touraine-ri berria adierazi diot, eta arras baikor iharduki du. Aldiz, ezin aipatu izan diot Gaudemar-i, Paristik kanpo omen delako. Niri neuri dagokidanez, zeharo ados nago epaitegiaren aurrera lekuko egitera joateko. Behin-behineko epaiketa adierazten den orrian dauden esaldiak egunkarietako edo aldizkarietako laburpenak dira, eta historialariaren lana izango litzateke haien iturriak aipatuko ez balira! Abuztuko egun denak eta iraileko lehenak salbu, zeinetan biltzar desberdinetan ibilki Frantziatik kanpo egongo bainaiz, beste guztietan nirekin kontu dezakezu. Gainera, uztailaren lehen egunetan Montorako bidea hartuko dugu, eta espero dut han elkar ikustea.

Ikusten denez, beti bezain eskuzabal eta gizatiar ageri da Pierre Vilar gurekiko, eskatu gabekoak ere eginak baitzuten guri erantzuna ematerako. Ahalak eta bi egiten zituen beti gu laguntzeko.

Azkenik, aurreratuz, 1980ko urrian finkatu zen epaiketa-eguna. Aurrez uste baino lehentxeago izanik ere, Pierre Vilarrek ez zuen huts egin hitzordura. Madrilen zegoen bezperatik. Bere betiko hotelean, Gabrielarekin hainbeste aldiz egon zen berean. Elkarrizketa bat eduki genuen arratsaldez hurrengo goizekoa prestatzeko. Bertan nirekin zeuden Miguel Castells, Jose Fermin Jaka, eta *Punto y Horako* erreportari bat ere. Azken horrek, Madrilgo egonaldiaz profitatuz, elkarrizketa bat egin nahi izan zion Pierre Vilarri, orduan bertan ez bazen ahal zuelarik etortzeko prest zegoela adieraziz. Gainera, fiskalak deiturik, epaiketa-egun berean goizez helduko zen Sabino Unzurrunzaga, "Itxaropena" inprimategiko ordezkaria, bere testigantza ematera.

Epaiketa Entzutegi Nazionalako penaleko lehen sailean, Gonzalo de la Concha lehendakari zela eta Luis Antonio Burón eta José Luis Bermudez magistratu zituela igaro zen. Audientzia Nazionalan sartzerakoan, Miguel Castells abokatuak sarreran gelditzeko eskatu zidan, “behin-behingo bertan behera utzia zegoena” barnean agertzea beharbada probokaziotzat hartuko zutela eta. Ordukoa gogoraturuz, esan behar dut pena eman zidala, baina ez nuen inolako oztoporik jarri. Itxaroten eserita nengoen tokitik pasatu ziren garai haietan zorigaitzez ezagunak ziren polizia zibil batzuk. Ateratzean biziki kontent ziren gure defentsako kide guztiak. Modu berezi batez aipatu zidaten Pierre Vilarrek agertutako jarrera eta sendotasuna epailearen aurrean bere lekukotasuna emateko orduan. Errespetuz eta edukazioz baina aurre egin ziola egin nahi zutenaren zentzugabekeria azpimarratuz. *Punto y Hora* aldizkariak, 1980ko urriaren 23-30eko datarekin argitaratutako bere 198. zenbakian, epaiketara igorri zuen kazetariaren bidez honela kontatzen zuen gertakizuna:

Ordu batzuek Madrilen egon zen Pierre Vilar. Historialari ospetsua, Goi Ikasketen Sozialen Eskolako eta Sorbonako irakaslea, historian klasiko den hainbat libururen autorea, behin bederen Audientzia Nazionalako lekukoaren eserlekuetara ezarri zen Jokin Apalategiren *Los vascos de la nación al Estado* liburuaren defentsa egiteko. Beste behin ere Kultura eta Askatasunen aldeko borrokan konprometitutako Pierre Vilar intelektualak lekukotasun adorea egin du. Apalategiren tesia saritu zuen Parisko Epaimahaiaren epaile kalifikatzaile izan zenak, orain Madrigo epaitegi batek gaitzesten duena, ikerketa librearen aldeko defentsa egitera etortzeko ez du ezbairik eduki bere denbora eta lana sakrifikatuz.

Azaroaren 11n eman zen epaia. Editorea ere libre irten zen auzi hartatik. Hala ere, liburua ez berrargitaratzeko eskaria egiten zen.

Kontakizuna amaitzeko, hurbil gaitzen Pierre Vilarrek *Punto y Horari*, epaiketaren kariatara, Madrilen emandako elkarrizketa laburbiltzera. Gainera, hau idazten ari garen egunetan gaurkotasan osoa duen gaia baita kazetariak eta historialariak darabiltena: autodeterminazioa, hain zuzen. Elkarrizketaren sarreratik beretik honela hasten da:

Begira, autodeterminatzeko eskubidea, paperean, teorikoki, oso ongi dago, baina hori nola egiten den, honetan datza dena. Beharbada eskandalua egingo duen aitorpen bat egingo dizut: nik neuk ez daukat konfiantza gehiegirik sufragio unibertsalean. Izan ere, aburuaren baitan beti sekulako aldaketak daudenez, jendea gauzen arriskugarritasunaz konbentzitzea lortzen denez eta, ondorioz, aldatzen, gaur aukera bat egitera ailegatzen den herria, urtebeteren buruan beste zentzu batean erabakitzen hel baitaiteke. Interesduna autodeterminazio pentsatua, zehaztua eta organizazioaren kontzientziarekin onartua izango litzateke eta ez erreferendum baten bidez egina, ez baitaiteke jakin nondik aterako den...

Elkarrizketa berean gogoeta soziopolitikoaren alorrean kokaturiko perla anitz topatzen da. Horiatariko bat edo beste hona ekarriko dugu. Espainiako Konstituzio berriari buruz hau dio:

Konstituzio berriaren nazionalitateak, ezin ukatu izan direnez, baieztatu egin dira, baina —kontraesan handiz— Espainiar Estatuaren batasun osoa ere baieztatu egin da. Katalan, kanariar eta euskaldunen kasua ez da esklusiboki antizentralismoarena; aitzitik, beren nazionalitateak eraikitzen saiatzen dira ondorio gutziak, eta horrek

egokiak diren formulak aurkitzea eskatzen du. Nire irudiko espainiar tradizioak —nola monarkikoak hala errepublikarrak— federalistak dira eta orain nehork ez du federalismorik aipatzen.

Euskal independentziari buruzko bere aburua eskatzen zaionean, honela erantzuten du:

Euskal errealitatea hain da garbia, non egunen batean nazionalitate izango baita, estatu bat eskatzeraino. Hala ere, onartu behar dugu Iparraldean kontzientzia politiko eskasagoa dagoela Hegoaldean baino. Han ere euskaldun sentitzen dira eta, elkartasuna erakutsi behar izanez gero, horretan denek parte hartuko lukete; baina kontzientzia politikorik ez da ematen, ez da Hegoaldean bezain errotua. Bestalde, arras naturala deritzot honi, kontsideratzen dudanez ez baita euskal estatuaren historiarik eman. Hauxe da, hain zuzen, falta dena euskaldun guztien nazio-kontzientzia politikoa errealitate zehatz bilaka dadin.

Kazetariak, aurrera jarraiki, beste galdera hau pausatzen dio:

Dena den, ez al zaizu iruditzen Euskadin ematen den kontzientzia politikoaren birsortzeak iragarpen irudikor denak gainditzen dituela?

Erantzuna beste behin ere ozena da:

Bai, hori da, hain zuzen, garrantzizkoena. Euskal kontzientzia molde modernoan XIX. mendearen amaieran sortu zen. Uste dut, gainera, ez dela hainbeste euskal igaroa, arraza, hizkuntza, tradizioa, kultura eta abertzaletasuna errealitate bezala bilatu behar, zeina gaur egun gaitzeko indarrarekin ematen baita. Hori eta immigrantearen integrazio falta ere kontuan hartzekoak dira, bereziki hizkuntzaren zailtasuna dela medio, koska baitira.

Beste punturik ere jasotzen jarrai genezake, baina gaurkoz, gehiago nahi duenari artikulu horretara joateko eskatuz, bertan utziko dugu.

2.8. Gernikaren zaintzaile

Badugu aipatu beharreko beste pasadizo gogoangarri bat ere Gernikaren suntsiketaren 50. urteurrenaren inguruan. Jakina den bezala, gertakari historiko hori gogoratu eta horren gainean eztabaidatzeko, 1987ko apirilaren 16tik 26ra, jardunaldi sozial, kultural, sindikal eta politikoak prestatu zituen ezker abertzaleak. Horren kariatara, “Gernika 37-87 Batzordeak” argitaraturiko *Euskadi 1977-1987* liburu bikainak hitzaurrean hau dio:

1987ko apirilaren 26an betetzen da Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrena, Legión Condor delakoak halaxe nahita eta era masibo batez, moralez eta egitez, Euskal Herria kaskatu asmoz egindako eraso. Gaur, Gernika Euskal Herria osoarentzat eta Nazio guztientzat sinbolo bat da. Orduetik hona eta geroago, Lidice Colonia, Hiroshima, Nagasaki ere aro nuklearreko ‘Gernika’ bihurtu dira. 50 urte pasa ondoren, hiri hauek guztiak bakezale diren Herri denen irudi dira. Euskal Herriak Gernika du egun bere duintasun historikoaren sinbolorik sakratuena. Hemen biltzen dira gure Herriak dituen eta bizirik diharduten askatasun eta bake ametsik beroenak. Hemen batzen da Euskal Herriak beste herrietakoekin batera duen itxaropen eta borroka zantzoa. Urteurren hau ospatzen dela eta, Gernikan —kultur eta erresistentziaren gunean, alegia— elkartuko dira gure herriko kultur eta arte-talde edo mugimendu guztiak. Eta kultur gertakarien artean euskal prentsako argazkilariek Euskal Herriko

azken hamar urteetako argazkien erakusketa bat aurkeztuko dute, artearen balioaz gainera, gure Herri honek askatasun eta bakearen bideetan daramana erakutsiz.

Liburu aipagarri horrez gain, esku-egitarau aberats bat egin zuten Batzordekoek. Hor, egunez egun, 16tik 26ra bitartean bideratutako ekintza guztien berri zehatza ematen da. Harrigarria gertatzen da ezker abertzaleak hainbat gizarte-egile mobilizatzeko zeukan ahala konstatatzea. Egitarauaren hitzaurrean hau dio:

Apurka, denon laguntzaz, margolari, aktore, musikari, eskultore, kirolari, erakunde politiko eta sindikal, gazte, emakume, langile eta beste hainbatek egia bihurtu dute egitarau honen egiaztapena.

Hori guztia, prestaturiko ekintzei errepasatuz eta parte-hartzaileen kopurua zein kalitatea kontutan hartuz egiazta daitekeenez, benetan herri oso bat desfilatzen den eszenatokia izan zen. Eta Batzordea horren jakitun da:

Kontuak kontu, herriaren manifestazio osoa da bonbardaketaren urteurrenean Gernikan burutzen dena bere izatearen alderdi guztiekin, hala nola kulturalarekin, politikoarekin, errebindikaziozkoarekin, kirolezkoarekin, artistikoarekin, e.a. la konturatu gabe buelta eman diegu Gernika bonbardatu zutenen asmoei, zeren beraiek uste baitzuten ekintza hark betirako deuseztatuko zituela euskal herriaren nazio-nortasuna eta bizirik irauteko guraria, baina, 50 urte beranduago, herriak zutik dirauen froga bilakatu zaigu ekitaldia.

Bestalde, garai haietan ohikoa zen tirabira konstatatzen da:

Argitu beharra dago inizatiba mamitsu honen aurrean administrazio publikoak —Eusko Jaurlaritzak, alegia—, bere osotasunean, agertu izan duen gogo falta laguntzak eskaintzeko orduan. Denontzat ezaguna da administrazioak “bere omenaldian” 500 miloi inbertitu zituela ekintza elitista prestatzeko.

Batzordekoek, oso kriterio ona erabiliz eta hartutako erabakiaren jakitun zirela erakutsiz, Gernikako bonbardaketa izan zeneko 50. urteurrena ospatzeko, nazioarte-mailako bi pertsonaia ekartzeko apustua martxan jarri zuten. Pierre Vilar eta Herbert R. Southworth ziren bi izen horiek. Horretarako, niregana etorri ziren laguntza eske. Gustura hartu nuen eginbeharra, Batzordekoek nahi zutena lortzeko aukera handiak ikusten baintuen. Horrelakoetan egiten denez, errazena nuenetik hasi nuen nire itaunketa. Pierreri telefonoz deitu nion, Gernikako bonbardaketaren omenaldirako eratutako Batzorde herritarrak zeuzkan asmoak eta espektatibak agertuz. Baikor jasoz deialdia, ontzat eman zuen Batzordearen inizatiba. Gainera, bera saiatuko zela Herbetekin hitz egiten eta konbentzitzen gehitu zidan. Beti bezala, Pierreren demartxa lasterra eta ziurra izan zen. Egun gutxi barru telefonatu zidan dena konpondua zegoela esanez. Geroago, Batzordeak Herbetekin joan-jinak xehetasunez eta zuzenean lotzen jarraitu zuen. Eta ni neu arduratu nintzen Pierreren Gernikarako jin-joanaz. Gogoratzen dut, bezperan, bere Lukutzeko etxetik gaur egun Baionako Thiers karrikan aurkitzen den Grand Hôtel izenekora ekarri zutela sendikoeak. Horretarako, berak esana zidan Gabrielak eta biek, Baionan lo egin beharra zuten bakoitzean, “Capagorry” hotelean ostatu hartzeko usadioa zutela. Baina aldi hartan, konpontzen ari zirela eta, itxirik zegoen. Urteurren-egunez, goizeko zortzietan, emana genion elkarri hitzordua hotelean. Han agertu ginen, Ur, Maite eta hirurok. Harrera beti bezain bero eta alaia egin zigun ikustean. Eta geure autoan sartuz, Gernikara abiatu

ginen. Ailegatzean festa-giro ederra topatu genuen. Batzordekoek berriz, tokatzen zen bezala, handizki eta maitasunez hartu gintuzten. Pierreri, bereziki, bere jarrera eskertzeko hitz beroak eskaini zizkioten. Herbert ere heldua zela eta, elkarrekin topo egiteko bideak laster egin zituzten. Pierre eta Herbert —hau Suzanne bere emazteak lagunduta—, emozioz gainezka besarkatu ziren. Eta berehala eguneko egitarauak zeukan ekintza-andanan murgildu ginen. Bereziki gogoangarria egiten zait gaur egun ere, 11:00etan Gernikako kaleetatik zehar lehendik markatutako ibilaldi historikoa egin genueneko. Segidan, 12:00etan, bonbardaketan hildako eta bizirik gelditutakoei egindako ohorezko aurrezkuak jarraitu zion. Etenik gabe, 13:30ean, Unión pasealekuan “Gernika 37/87 kanpaina”ri amaiera emateko ekintza izan zen. Gernikako kaleetatik barna desfilatu genuen milaka pertsonak, erraldoi eta buruhandi, blusa, konpartsa, lagun-talde eta dantzari inguratuta, eta lehen lerroan Pierre eta Herbert lagun genituela. Hura txunditzea izan zen guretzat eta, bereziki, haientzat.

Bazkaltzeko tokia ere erreserbatua zegoen guretzat. Hautatuak egon ginen bertan. Eta 4:30ean batzordekoek “bonbardaketaren ordua” deitua zuten ekintzara abiatu ginen. Zer izan zen? Historialarien mahaingurua, Gernikako bonbardaketaren inguruko ikerketak gaur egun nola dauden ikusteko, “Gernikaren egia” gaiaren inguruan egina. Gernikako Institutuan ospatu zen. Heldu ginelarik, oinez, Institutuaren inguruak jendez mukuruturik zeuden. Gela handia izanik ere, leporaino zegoen. Hizlari honakook aritu ginen: Herbert, Pierre, Tuñon de Lara, F. Garcia de Cortazar eta ni neu. Batzordekoek alde zuretik emandako gaian jakintsu bakarrak Herbert eta Pierre ziren, noski. Gogora dezagun Herbert jauna, 1967an argitaratutako *El mito de la cruzada de Franco* lanaren autorea izateaz gain, bereziki 1974an lehen aldiz argitaratutako *La destruction de Guernica* liburuaren egilea dela. Gertakizunaz egindako azterketa ezin zehatzagoa izateaz gain, egiteko modu-gatik eta dokumentazio-jarraipenagatik ikerketa historiko bezala ere eredugarri gertatzen da edozein historialarirentzat. Eta lan hori doktore-tesi bat zenez, garrantzizkoa zaigu azpimarratzea Pierre izan zela haren zuzendaria. Bien arteko konplizitateak, behingoz, ordurarte frankismoak hedatutako Gernikaren suntsiketari buruzko egiletasunaren gezurra betirako nabarmenduz gaudituko du. Beste hirurok Euskal Herriak une hartan bizi zuen bidegurutzea eztabaidatzeko aitzakia izan ginen. Eta hori mahainguruko gaian sartu bezain laster agertu zen. Tuñon de Larak, bereziki, ezker abertzalea zirikatzeari ekin zion. Eta publikoak erantzuna ozenki eman zion, zeren entzuleek ere parte hartu baitzuten.

Etixerako bidean bezala Baionara itzultzean, Pierrek bere poz eta zorionaren betea erakutsi zigun. Dena harrigarria izan zela aitortu zigun. Behin ere ez zuela amestu horrelako egunik bizi behar zuenik. Hori gutxi izan balitz bezala, ondoko asteetan esker oneko gutun bat jaso genuen etxean. Eta geroztik gurekin bakarka bezala beste batzuekin izandako hainbat elkarrizketatan Gernikako eguna loriaz josita aipatu zigun.

2.9. Informazio iruzurraren salatzaile

Intsumisioagatik aterbeturik Hendaian bizi zen Juan Carlos Garcia Goena GAL elkarte terroristak bonba bat bere autoaren azpian ezarri erailtzen du 1987ko uztailaren 24an. Desagertu aurreko GALen azken erailketa da. Aurretik ere hama-sei hilabete zaramatzen ekintzarik egin gabe. Horregatik, uste zen betirako joana

zela. Ondoko egunetan hildakoaren aurkako atentatua bere bizkar hartzean, komunikatuak zera gaineratzen du, alegia, bigarren atentatu bat egiten ere saiatu zirela Jokin Apalategiren Baionako etxean aparkaturik zegoen R14 marroi baten azpian bonba emanek. Nahiz eta autoaren eta biziokiaren datuak faltsuak izan, mehatxua publikoki egina zegoen. Kasualitatea, ni eta Maite hogeitau egun haietan Eskandinabiatik ibili eta gero, arratsaldean etxera sartu berriak ginen. Etxean hamabost minutu besterik ez generamatzala, telefono-dei bat jaso genuen, Baionako lagun batek egina. Maitek telefona hartzean, lehen galdera hau egiten dio lagunak:

- Maite, ongi al zarete?
- Bai, bai. Oso bidaia ederra egin berri dugu.
- Baina nola bidaia egin duzuela?
- Hala da.
- Barkatu baina, ez al dakizu gaur zer gertatu den?
- Ezer ez dakigu kanpoan egon garelako, baina berriak jakiteko gogoz gaude.
- Gaur goizean Hendaian atentatu batean hildako bat egon da.
- A, bai?
- Are gehiago, atentatu-egileek, GALekoek, Jokinen auto azpian ere bonba bat emana dutela diote. Bai, bai, irratia guztietan horretaz ari dira.
- Baina nola izan liteke hori, gure autoa hogeitau egun hauetan garajea egona baita? Maitek harriduraz.
- Mia ezazue hartu aurretik, badaezpada ere.

Urduri bezain larri, mila esker esan eta, laguna agurtzen du. Ondotik niri kontatzen dit guztia. Biok harrituak, minutu batzuetan zer egin ez genekiela egon ginen. Hala ere, ez gara autoa miatzen gu geu hasi behar, diogu elkarri. Orduan zer egin? Poliziarri deituko diogu. Baionako polizia guztietako buruzagiak eta hainbat meneko ordu-erdiren buruan etxean genituen. Polizi buruak gu lasaitzen saiatu ziren. "Ez dugu uste GALekoak izan direnik. GAL desagertu zen", diote. Garaje eta etxe-inguru guztia miatzen jardun eta gero, ez zegoela bonbarik jakinarazten digute. Azken hitza, berriz, honako hau: "Zaudete lasai. Zuen aurka ez dugu ezer". Eta joaten dira.

Maitek eta biok, ondoko egunetan, uztailaren 28an zehazki, prentsaurreko bat ematen dugu Baionan. Zer du GALek nire aurka? Donostian Unibertsitateko irakasle titularra nintzen. Joan-jinean nenbilen egunero mugaz bi aldeetan. Gure bizilekua Iparraldean edukitzea delitu ote da? Baina Maitek guk Baionan sortutako "Zabal" liburu-dendan egiten du lana. Nonbait bizi beharko dugu, bada? Nire ustez, gure ideiak, aburuak eta konpromiso politikoak dira GALekoek erasotzen dituztenak. Edonoren aitzinean eman behar diren erantzukizunak emateko prest agertzen naiz.

Zenbait aste geroago, EFE agentziak Bilboko bulegotik deitzen dit, elkarrizketa bat izan nahi lukeela adieraziz. Baietz esaten diot. Bilbon luzaz mintzatzen naiz kazetariaren galdera guztiei agortu arte guztian erantzunez. Eta azken mezua bat luzatzen dut: "Barrionuevo-k berak ikusi nahi banau ere, jakin dezala prest nagoela harekin elkarrizketatzeko". Ondotik badirudi guztia pausatu egiten dela.

Ezustean, ordea, irailaren 2an, *Diario 16* egunkariak, poliziak Behobian GALen zulo bat aurkitu duela eta, bertako paperetan nire aurkako salaketak daudela argitaratzen du. Hurrengo egunean prentsa guztiak aipatzen du berria. Hurrengo egunean bertan, *Diario 16* egunkariari gutun bat igortzen diot. Eta ondotik berria jaso zuten gainerako egunkari eta aldizkariak ere bai. Irailaren 15ean, Psikologia Fakultateko Gizarte Saileko zuzendariak nire aldeko sostengu-txosten bat igortzen du Fakultateko Batzarrera, eta horrek, aho batez onartuz, elkartasuna adierazten dit.

Gertakarien erritmoa ikusirik, nire lagun minenek zerbait gehiago egin behar dela esaten didate. Nire pertsonari berme morala ekarriko dion ekimena martxan jartzea erabakitzen da. Gutun publiko bat prestatu eta pertsonalitate hautatu batzuek beren sinaduraz ni babestea izango da helburua. Ondoko hauek izango dira agiria izenpetuko dutenak: Amezaga Elias, idazlea; J. M. Barandiaran, etnologoa; E. Barbera, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea; J. M. Bidarte, Bizkaiko Abokatuen Kolegioko lehendakaria; J. Caro Baroja, antropologoa; J. Egiluz, Deustuko Unibertsitateko errektorea; P. Gaudemar, soziologoa; J. Oteiza, eskultorea; C. Santamaria, idazlea; J. M. Setien, Donostiako apezpikua; P. Sorozabal, musika-konpositorea; A. Touraine, soziologoa; E. Txillida, eskultorea; eta Pierre Vilar, historialaria.

Izen horien artean, bada, Parisko unibertsitateetako hiru irakasle ezagunen sinadurak agertzen dira. Nire adiskideek zerabilten proiektua agertu niolarik Pierreri, bera arduratuko zela Alain Touraine eta Paul Gaudemarren adostasuna eskuratzeaz adierazi zidan. Eta esan eta egin, dena bat gertatu zen. Handik lasterrera Alain eta Paul-en eskutitzak jaso nituen beren baiezkua emanez.

Sinaturiko ageriak zer zekarren? Hiru puntu hauek azpimarratzen ziren:

1. Jokin Apalategiren kontra egindako akusazio bidegabekoen zabalkundeak larriki arriskuan jartzen dituela haren bizitzari eta askatasunari oinarritzkoak zaizkion eskubideak.
2. Talde inkontrolatuetatik etorritako errebindikaziozko ekintzen mehatxura jotzeak, nolana ere, suposatzen duela, ez bakarrik pertsona konkretu horren eskubideak haustea, baita elkarbitza hiritarraren ordena eta bakea arrisku larri-larrian jartzea ere.
3. Horregatik —diote—, jokamolde hori gaitzetsi egiten dugu eta, aldi berean, elkarbitza hiritarraren oinarri gisa, hiritar guztiek bizitza eta askatasunerako duten eskubidea ezagutu beharra berresten dugu”.

Bestalde, eta bere inizatibaz, Pierre Vilarrek erasoaren bigarren aldia eginkizun berezi bat jokatu zuen, “*Diario 16*, informazio eta aldizkariaren taldeko” Juan Tomas de Salas lehendakariari gutun ozen eta gogoangarri bat idatzi baitzion 1987ko irailaren 15ean. Idatzian ez dago mendre den hitzik, baina, luzea denez, laburbildu egingo dugu bere mamia, honako pasarte hauek emanez: “Ez natorkio hitz egitera prentsa-talde bateko Lehendakariari, baizik ohore eginez, Goi Ikasketetako Eskolara nirekin Espainiaren igaroaz gogoetak egitera etortzen zen espainiar gazteri eskuzabal eta elkartuko kideari...*Historia 16, Cambio 16* eta abarretan tokia eman izan zait nire iritziak eta elkarriketak agertzeko..., baina arau bat betetzen entseatu izan naiz beti, **Espainiako barne-politikaz zuhur**

jokatu dut, alegia... Badira informazioko zenbait metodotan gizatiarrak diren ardurak eta ez politikoak inplikatzeko dituzten kasuak... *Diario16* egunkariak Jokin Apalategik GALen akusazioen barne-kontraesanak agertuz prentsari emandako esplikazioak ez zituen agertu baina, GALen akusazioak irakurleei eskaini zizkien. Hori ezin da justifikatu 'la única intención de las informaciones de *Cambio16* es precisamente la de informar' erantzunez... Pertsona baten bitzta arriskuan jartzen duen akusazio bat dagoenean ezin da **frogarik gabe eta dudan jarri gabe** argitaratu...". (Gero dio, Jokin, Maite eta Ur aho beteko sinpatiaz auzokideek onartuak direla bizi diren tokian eta daramaten konbentzimendu lasaiko bizitzak "terroristaren" irudi diabolikoa gezurtatzen duela). Antiterrorismoaren aitzakian ezin zaiola inori ukatu pentsatzeko, idazteko eta bizilekua aukeratzeko daukan askatasuna. Alderantziz, egin behar dena zera da, gustuko ez izanik ere, terrorismoan sartzen ez diren talde-bizitzak eta pentsamenduak konprometiarazi... (Erasotzen du "16 taldeak" argitaratu duen "Manual del buen terrorista" ere, ondoko errezeta hau eskaintzen duelako: "sabido es que las dictaduras no crían terroristas". Eta beste esaldi honekin erantzuten dio: "sabido es", ezpairik gabe, ETA Francoren pean ez zela aritu?)... Frantziako zuen kolaboratzaileak begikoen Jean François Revel da, noski. Horren azken liburuan euskal terrorismoaren esperientzia bat kontatzean, "jesuita-metralleta" edo "frate-mitra" (sic) delakoaz mintzatzen da, bere izaera nagusia Bilboko neska ederrenak ezagutzen zituela esanez harropuz sentitzen delarik. Zorionez, Frantzian barregarriak hil egiten du. Eta Madrilen ez? ...". Eta amaitzeko, zera dio: "Ez dut asmorik deliberatuki lotuta zauden ikuspegi politikotik atera zaitezten konbentzitzen entseatzeko. Baina GALen dokumentuak argitaratu eta Apalategiren gezurtatzea ez publikatzearen kasu zehatzean dagoen gizatiar ardurari dagokionez, zure kontzientzia informatzailean durduza espero dut. Frantzian, gu geure aldetik, GALEk konfiantzarik ematen ez dieten autoritate interesatuen aurka deiadar egiten entseatzeko gara...".

Gertaera horrek merezi zuen, uste dugunez, lekukotasun hori hona ekartzea.

2.10. Ahoz eta idatziz argitzaile

Hainbat izan dira Jokin eta Maitek lagunduta, edo Paulok zuzenbideak emanda, Pierre Vilar ikustera eta berarekin elkarrizketa jakintsuak egitera hurbildu izan diren euskal munduko adituak, idazleak, kazetariak, artistak, eta abar. Inor ez zuen dezepzionatzen. Beti beste behin ere itzultzeko gogoia erakusten ziguten etxerako bidea hartzen genuelarik.

Artikuluren edo lankidetzaren bat eskatu izan nion bakoitzean ere entseiatu zen parte hartzen. Azken bi komentatuko ditut. Bata, Eva Forest-i *Pueblos, naciones, estados. Cuestión nacional y movimiento obrero* liburua bere Sediciones bilduman argitaratzeko baimena lortzeari dagokiona izan zen. Gainera, beste edozein lan argitaratu nahi bazuen ere, harremana irekia uzten ziola gogoratu zuen. Hortik dator, noski, Eva Forest-ek berak Sediciones bilduman berrikitan argitaratua duen *El hecho catalán* liburua. Bestea, Txalaparta argitaletxeak *1936, Gerra zibila* edo *Guerra civil en Euskal Herria* liburuarentzat hitzaurre bat idazteko eskaintza luzatuarazi zidanekoa da. Egindako eskarien arteak bakarra da onartu eta hitza emanik ere egiterik lortu ez zuena. Espainiako gerra zibilaz zenez, arras pozik hartu zuen eskaintza. Ilusioa eman zion eginbehar hark. Laguntza ere eskaini nion

baldin eta grabaketa egin nahi bazuen. Itsuturik baitzegoen eta bestela zaila zitekeen berarentzat. Eskertu zidan eskaintza, baina esan zidan konponduko zela bere biloba bigarrenaren emaztearekin. Eta hura kolonbiarra izaki, zuzenean gaztelaniaz transkriba zezakeela. Uda zen eta lanaren eskuraketa Eguberrietarako agindu zidan. Txalapartakoei hura guztia kontaturik, denok pozik ginen. Eguberriak heldu zirelarik, beti bezala Lukutzeko etxera agertu ginen urteroko bisitan, baina baita gerra zibilaz egin behar zuen lana eskuratzeko asmoz ere. Triste eta arduraz beterik aurkitu genuen:

Ezin izan dut zuri hitz emandako lana egin. Urteak daramatzat neure begiekin irakurri gabe eta lan horretan hasi naizelarik, hutsuneak aurkitzen nituen, nik nahi nuena ez zitzaidan ateratzen. Gaian sakontzeko irakurri beharra daukat, baina hori ezinezkoa zait. Orduan, ezetz ematea erabaki dut. Sentitzen dut benetan zuregatik eta Txalapartakoengatik.

Hauek izan ziren ezintasunarekin topo egin zueneko aitormen-hitzak. Domaia da hain janaritua, landua eta aberatsa izan den norbait agortzen ikustea. Giza-kiaren esistentziako drama nagusia seinalatzen ari naiz. Horrelakoak dira gure mugak.

3. Historia soziopolitiko eta ekonomikoan eredugarri

Pierre Vilar, Frantziako historialarien artean, orokorrean hispanista eta, bereziki, katalanista gisa hartua izan da historia ekonomikoen sailean. Eta halakotzat hartua izateko bada funtsik, orrialde asko baititu Espainiaren zein Kataluniaren historia soziopolitiko eta ekonomikoaz eginak. Azken kasuan, gainera, bere ikerlanek eta bere integrazio intelektualek izandako eragina hain erabakigarria izan zen, ezen bertako historialarien artean eskola bat sortu eta bideratzea lortu zuela, egun indartsua dena. Espainiako historialariez arras goratik mintzatu ohi zen, esanez goi-mailakoak bazirela. Baina mingainetik tiratu beharrik ez zen izaten handik segundo batzuetara haietako batzueganako bere desadostasun serioak ere ager zitzan, frankismoaren ondoko ezkerreko intelektualak —berak halakotzat zeuzkanak, alegia—, erreforma ustelari salduak ikusten baitzituen. Pujol-en Katalunia autonomista bera ere bai, harengan banka-gizon bati zegokion jokabide politikoa besterik ez baitzuen atzematen.

Errusia eta erregimen komunistak gainbehera zihoazen garaiak ziren haiek, ustelkeriak jota. Pierre Vilar bezalako marxista konbentzitu batentzat sekulako hondamendia izan zen hura eta, urteetan zenbat eta aurrerago, orduan eta beltzago ikusten hasi zen mundu-ordenaren norakoa, galduta bezala, egiaztatzean Ekialdeko zein Mendebaldeko Europa Estatu Batuen gerra-musikara dantzan ari zela. Neoliberalismo basatiaren lege ankerrera makurtu ez ziren bakanen artean bat, Euskal Herria zen. Bera zen, askotan aitortu izan zigunez, oraindik iraultza nazionalista eta sozialistari tinko eusten ziona, biak borroka berean uztartzen zituena. Ordukoak dira —1980ko hamarkadaz geroztikoak, alegia—, Pierre Vilarrek euskal komunikabideetan, zehazki *Egin* egunkarian (1982) eta RIEV aldizkarian (1983) argitaratzen dituen artikuluak eta Joseba Intxaustik *Euskal Herria* bildumako bigarren liburukian (1985) egiten dion elkarrizketa luze eta mamitsua. Kasu batzuetan harreman horiek bideratu ahal izateko zubi-lana egin izanak pozten gaitu gaur, orduan idatziak hor geratu baitira.

Lan horietan, nazioaz, kulturaz, edo historiaz mintzatzean, lehen beste argitalpenetan idatziak birformulatzea mugatzen da, Euskal Herriaz aipu zuzenik egin gabe. Azken honetan, halere, kontzientzia nazionalaren eraketan hizkuntzari ematen dion garrantzia azpimarratu beharrekoa da, hor garbiki esaten baitu hizkuntza dela, klaseen gainera, komunitate baten kohesio etnokulturala bermatzen duen *epe luzeko* elementu sustantiboa²⁵. XXI. mendean, Iberiar Penintsulako mapa politikoa hiru lurraldetan banatua ikusten du: Pirinio eta atlantiko aldean, Euskal Herria; mendebaldean, Galizia eta Portugal; erdialdean eta hegoaldean Gaztela eta Andalusia; ekialdean, Herrialde Katalanak²⁶. Estatu konfederatua edo horren antzeko zerbait zen berak amesten zuena.

4. Kontzeptuen mugaketan tematsu

Ezin gara aurrera joan, gure oraingo xedea ez bada ere, bere historiari buruzko ikuspegiak deus esan gabe. Bere ikerlanak beti gizarte-fenomeno jakin bati buruzkoak izan dira, esan bezala, gehienbat Iberiar Penintsulan kokatzen direnak. Baina bere lan horietan, eredu metodologiko eta teoriko batzuei jarraiki jotzen du beti. Harritzekoa da berak oinarritzotzat dauzkan zenbait kontzepturen mugaketan egiten duen ahalegina. Kezka hori, batik bat, bere *Crecimiento y desarrollo* (1976) eta *Iniciación al vocabulario histórico* (1980) liburuetan agertzen da.

Lehen liburu hori (1976), hain zuzen, egilearen 11 artikuluek osatzen dute, garai eta iturri desberdinetan argitara emandakoek²⁷. Bere zalantzak izan zituen zenbait testuingurutan burututako lan horiek bilduma gisa argitaratzeko. Nahiago izaten zuen, eginak zeudenak bere hartan utzi eta liburu berri bat egitea, erabat berria. Baina azkenean amore eman zuen. Hemen ere, hitzurrean irakur daitekeenez, betiko kezka intelektualak agertzen ditu, horien artean, bat nagusia, hots: historia arrazonatzea. Eta horrek, aldi berean, ekonomista, historialaria eta soziologoa izatea eskatzen dio. Historialariak gizarte-fenomenoak “nola” gertatzen diren deskribatzen du, ekonomilariak “zergatik”, eta soziologoak biak elkartzen ditu. Aurkibideak berak erakusten duenez, hemen Vilar historialari eta ekonomialaria agertzen zaigu. Hazkunde ekonomikoaren gainean egindako saioak dira bereak, beti ere garaian garaiko abagunen esparrutik aztertuta. Lehen esan bezala, lehenik

25. Hala dio: “Sí, donde la expresividad nacional adquiere un rasgo de verdad sustantivo es en el idioma. La lengua, a parte su valor caracterizador, puede aportar, al menos, tres niveles de continuidad: el temporal histórico, generalmente plurisecular; el espacial, que trasciende a veces compartimentaciones geográficas o políticas, y el social, por el que el curso social puede gozar de una cohesión etno-cultural por encima de las clases y frente a otras comunidades etno-lingüísticas. La lengua es hijo de gran número (del uso del pueblo) y de *larga duración* (...) Es precisamente, en las relaciones comunitarias del idioma (que, además, en muchas naciones puede ser propio y hasta exclusivo) donde viene a nacer la condición primera de toda vida intelectual original” (Op. cit., 536. or).

26. *Ibid.*, 539.-540. or.

27. Lehen, “Crecimiento económico y análisis histórico” deitua, ehun orrialde inguru dituen, Historia Ekonomikoari buruzko Nazioarteko Batzarrean, Estokolmon, aurkeztutako txostena da, 1960an egina. Oinarritzokoa. Besteak aldizkari hauetan eman ziren: *Annales*-en, “Historia de los precios. Historia general (Un nuevo libro de E. J. Hamilton)”; “Consideraciones sobre la historia de los precios”; *Revue d'histoire économique et sociale*-n, “Transformaciones económicas, impulso urbano y movimiento de los salarios: La Barcelona del siglo XVIII”; *Estudios de Historia Moderna*-n, “El declive catalán de la Baja Edad Media”; *Europe*-n, “El tiempo de Quijote”; *Studi storici*-n, “Marxismo e historia en el desarrollo de las Ciencias Humanas”; *La Pensée*-n, “Desarrollo económico y progreso social”.

Frantziako eskola geografikoan eta gero Ernest Labrousse-ren eskola historikoan hezitako Vilar irakaslea lehenengoenetakoa izango da *historia totala edo osoa*²⁸ deitu ohi zaionaren teoria aldarrikatzen eta, halaber, Marc Bloc eta Lucien Febvre humanisten tesiak Karl Marx-en ekarriekin elkartzen. Pierre Vilarrentzat ez da historiarik azterketa ekonomikorik gabe, ezta baliozko teoria ekonomikorik historiarik gabe ere. Tesi hori da bilduma horretan etengabe sostengatuz datorrena. Areago zehaztuz, esango dugu Vilarrek bilduma horretan agertzen dituela, agian beste inon baino argiago eta luzeago, bere ikuspuntu metodologiko-teorikoak, ekonomia-hiztegi modernoan oinarritzekoak diren zenbait kontzeptu, hala nola hazkundera, garapena, hazkunde-hasiera, krisia, azpigarapena, ongi zehaztuz. Oinarri teoriko horien argitan aztertzen ditu han-hemengo kasu konkrituak, berdin XVI. edo XVIII. edo XIX. mendekoak. Nolanahi ere, esan behar da, historia nola egin behar den arazoaz gogoetak egitean, aipatu beharreko lana dela “Historia marxista, historia en construcción” izenekoa, frantsesez 1974an argitaratua eta gaztelaniaz 1978an emana. Hain zuzen ere, 40 orrialdeko saio horretan dihardu historia marxismoaren ikuspegitik begiratua nola eraiki daitekeen gaiaz, Louis Althusser, Michel Foucault, Lucien Febvre, Ernest Labrousse, eta Fernand Braudel-en ikuspuntuak banan-banan eta arras zehatz azalduz eta kritikatu. Marxismoari dagokiona laburbilduz, egileak ondorioz ateratzen duena da, gizartean den oro historiatik begiratuta pentsatu edo arrazonatu behar dela. Marx-ek nahi izan zuen bezala. Gertatzen dena da, hau da Vilarren ustea, historia marxista oraindik egiteke dagoela. “A todos los niveles, la historia marxista está por hacer”, esango du²⁹.

Bigarren liburuan (1980), egileak zeharka aditzera ematen duenez³⁰, “historia arrazonatua” egitea proposatzen du, oraingoa ezagutzeko, lehena ulertzen saiatzea, alegia. Lehena ulertzeak, zehatzago hitz eginda, gizarte-faktoreak mugatzea suposatzen du, horien elkarrekintzak eta indar-korrelazioak aurkitzea, eta, testuen bidez, ekintzak gidatzen dituzten bulkada ohartuak zein oharikabeak aurkitzea. Era berean, oraina ezagutzeak, komunikabideetatik datorkigun informazio desitxuratua auzitan jartzea eskatzen du, horretarako behaketa-metodo kritikoak erabiliz. Prozedura hori da egileak erabiltzen duena bere ikerlanetan. Bestalde, egilearen ustez, oinarritzko hainbat kontzepturen inguruan sekulako anarkia gertatzen baita³¹, beharrezko deritza horien erabilera akademikoa argitzen, hala nola historiarena, estrukturarena, koitunturarena, kapitalismoarena. Gizateria bi talde handitan banatzen da eta horiei dagozkien kategorietan, batetik, gizarte-klaseak eta, bestetik,

28. Teoria hau berau landu zuten Jean Bouvier-ek, ekonomiaren historialari garaikideak, baita Lucien Febvre-k ere eta, orobat, *Annales*-eko kideek. Osotasun hau ez da eraikitako sintesi bat, ez, gizarte batek politikan, ekonomian, demografian, literaturan, tekniketan, pentsaeretan, eta abarretan izan duen eboluzioa definitzen duten datu jakin eta zehatzetatik abiatuta lortutako emaitza baizik. Historiari dagokio elementu horiek guztiak bildu eta bere osotasunean zentzu bat ematea. Hori da historia osoa egitea, Marx-en eredura.

29. *Hacer la historia*, op. cit., 219. or.

30. “¿Es posible construir el ‘concepto de historia’? No voy a discutir aquí esta cuestión. Pero si se puede, más modestamente, tratar de reflexionar, a partir del oficio de historiador, sobre el contenido de la palabra historia. Quise hacerlo en cuanto tuve ante mi un auditorio de estudiantes matriculados en primer curso de universidad en esta disciplina” (“Prólogo”, in *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, 11. or.).

31. “No dudamos en subrayar la vacilación, la confusión y las fluctuaciones del vocabulario y de los conceptos en torno a esta división espacial de la humanidad: razas y etnias, clanes y tribus.... que se descuiden” (Ibid., 145 or.)

herriak, estatuak, nazioak eta etniak aurkitzen dira. Aipagarria da Vilarrek kontzeptu horien guztien garbiketan egiten duen lana, autore klasikoen testuetara joanez eta beti ere bere aukerak eginez. Vilarren betiko kezka izan zen kontzeptuak ongi mugatzea. Ideia hori barru-barruan sartu nahi izaten zien ikasleei. Sorbonan irakasle izan zen garaian (1965-75) ikasleentzat prestatutako apunteak, funtsean, autore klasikoen testu hautatuak ziren, gehienbat historiarekin zerikusi zuzena zuten oinarritzko kontzeptuak bere testuinguru historikoan azaltzera mugatzen zirenak. Guk ere bagenuen testuliburu horietako bat, Sorbonan haren ikasle izandako Peciña arabarrak emana, eta oso oker ez bagaude, iruzkintzen ari garen *Iniciación al vocabulario histórico* liburu hau hango materiala aurrean izanda landua dukeela iruditzen zaigu. Liburu honen xede nagusia pedagogikoa bada ere, Vilarrek lan honetan egiten ditu oinarritzko hainbat kontzepturen inguruan bere gogoetak eta zehaztapenak, aztergaitzat hartuz historia, egitura, egoera, gizarte-klaseak, herriak, estatuak, nazioak, kapitalismoa eta nekazaritza-ekonomia.

5. Annales-eko eskolako baina kritiko

Frantzian, XX. mende hasieran, historialari-talde indartsu bat eratu zen, besteak beste, Lucien Febvre, Henri Berr, Marc Bloch-ek osatzen zutena, *Revue de synthèse* eta *Annales d'histoire économique et sociale* argitalpenen inguruan. Horregatik deitzen zaie, hain zuzen ere, *Annales*-eko eskolakoak. Pierre Vilar historialariaren kokapen epistemologikoa egitea eskatuko balitzaigu, beste inon baino egokiago eskola berean lerrotatua ikusiko genuke, horren sortzaile izandakoei mirespina baitie eta maisutzat baitaizka, nahiz eta horien aurrean ere, sarritan jarrera kritikoa hartuz³², bere pentsamenduaren autonomiari irmo eusten dion.

Intelektual horientzat guztientzat historia bakarra da, gizarte osoaren zientzia, eta ez horren zati batena bakarrik, denbora osoaren zientzia eta ez une bati bakarrik dagokiona; ondorioz, ez dago banatze finkorik eginiko historia desberdinen artean, adibidez, historia ekonomikoaren, politikoaren edo ideien historiaren artean. Osotasunaren ikuspegi hori da berak jasotzen duena Ernest Labrousse bere irakaslearengandik, edota baita François Simiand-engandik, batez ere errealtate ekonomikoak aztertzean. Bestalde, gizarte-egiturez jardutean, eta puntu honetan Fernand Braudel-i jarraiki³³, esango du badirela gizarte-fenomeno batzuk iraupen luzeko errealtate gisa har daitezkeenak, beste batzuk iraupen ertaine-koak, eta, azkenik, beste batzuk iraupen laburrekoak. Iraupen luzeko giza errealitateak dira solidaritate-mota oso zaharrekoak diren talde etnikoak zein tribalak, berdin hizkuntzak zein folklorea, egitura espazialean kokatzen direnak³⁴. Horrela, nazioaren kasuan, adibidez, egitate linguistikoak, kulturalak, lurraldearenak eta psikikoak aipaturiko lehen sailean sartzekoak izanen lirerateke; produkzio kapitalistarekin zerikusia duen fenomeno historikoa den aldetik, bigarren sailean; nazio-arazoa gizarte-mugimendu gisa aztertzen bada, berriz, hirugarren sailean, hauek unean uneko gizarte-talde bati lotuak baitaude³⁵. Hasieran geografoaren bokazioarekin

32. Lucien Febvre-ri aurpegira botatzen dio, adibidez, historialari positibistak hain zakar eta gogor kritikatzeko. Era berean, Ernest Labroussez esango du politikari atxikitzen dizkiola berez politikarenak ez direnak.

33. *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, op. cit., 64.-65. orr.

34. *Ibid.*, 71.-72. or.

35. *Ibid.*, 184. or.

jaio zen Vilar, azkenean, Marx-i jarraiki, historia soziologiarekin elkartuz bukatuko du. Esan beharrik ez dago Marx zaiola garai guztietako soziologorik gorena³⁶. Berak ertzeko joerak ezezten ditu, positibismo adina dogmatismo kritikoa.

Pierre Vilarrek berak esaten duenez, gizarte-errealitatearen konplexutasuna ulertzera ez zen iritsi marxismoaren bidez, "historiaren kontinentea" zer zen ez bide zuen ikasi marxismoan; alderantziz, gizarte-errealitatearen konplexutasunak berak erakutsi zion, berarekin historialari gisa harremanetan jarriz gero, Marx-en pentsamenduaren handia. Aurkikuntza hori 1920ko hamarkadaren bukaeran gertatu zen, *Annales*-en sorrerak zekarren iraultza epistemologikoarekin batera³⁷.

6. Hispanismoaren alorrean jarduteagatik etxean gutxietsia

Pierre Vilar Frantzia ez zegoela lehen mailako historialari gisa ikusia esan izan da, ez bederen babes akademikoa eman zioten Lucien Fèbvre edo Fernand Braudel baten mailakoa, edo bere garaikideak izandako Georges Duby edo Emmanuel Le Roy Ledurie baten mailakoa. Aitortzen diote, hori bai, unibertsitate-curriculum disdiratsua izan zuela, Sorbonan Historiako katedra Labrousse bere maisuaren eskutik hartu zuen irakasle on bat izan zela eta, bereziki, itzal handiko hispanista bat. Hori guztia, baina apenas ezer asko gehiago. Gutxiespen horren arrazoia zein izan litekeen, ez dakigu. Vilarren lan gehienak —garrantzitsuenak bederen— Espainiara begira eginak izan baitziren, ez Frantziara, baliteke horregatik haren izena bertakoentzat itzalean bezala geratzea. Bestalde, idatzi ere ez zuen asko idatzi edo, bederen, haren irakurle zaletuen ahotik hori entzunak gara behin baino gehiagotan. Gure historialarien artean haren jarraitzaileen eskolarik gauzatu ez bada ere, Katalunian bezala, guretzat Pierre Vilar beti izan da gidari intelektual garrantzitsu bat, gogoeta soziologikoan historiari dagokion lekua egiten erakutsi ziguna. Eta kosta ahala kosta gizatasunez eta etikotasunez betetako gizaseme gozo eta sentibera ikusten dugu haren irudi hieratikoa. Egiazki sinesten zuen gizarte gizatiarrago eta zuzenago baten eraikuntzan.

Bibliografia

Apalategi, J. (1979): *Los vascos de la nación al estado*, Elkar, Donostia.

Apalategi, J. eta Iztueta, P. (1974): *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*, Irati, Baiona; gaztelaniaz (1977): *El marxismo y la cuestión nacional*, Itxaropena, Zarautz.

Batasuna: *La répression au Pays Basque*, Maspero, Paris.

Berrogain, G. (1936): "Un document des Archives d'Aragon sur un épisode militaire de la guerre de cent ans", *Hommages à A. Rubio i Lluch. Miscelania d'estudiis literaris, històrics i lingüístics*, vol. III, Barcelona, 475-479 orr.

———, (1958): *Guide des recherches dans les fonds d'enregistrements sous l'Ancien Régime*, Imprimerie Nationale, Paris.

36. "Marx, que es sin duda el más grande sociólogo de todos los tiempos (...) expresó por lo menos un par de veces en el curso de su vida su deseo de identificar ciencia social e historia" ("Prólogo", op. cit., 8.-9. or.).

37. *Pensar históricamente*, Crítica, Barcelona, 1997, 27. or.

- , (1970): “Jean II et le Monastère de Montserrat au lendemain de la pacification de Catalogne, 1474”, *Estudios dedicados a Agustín Duran y Sempere en el LXXX aniversario*, XVI, III.
- Bilbao, L. M. (1979): *Transformaciones económicas en el País Vasco durante los siglos XVI y XVII*, Erein, Donostia.
- Fernández de Pinedo, E. (1974): *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco 1100/1850*, Siglo XXI, Madrid.
- Haupt, G.; Lowy, M. eta Weill, Cl. (1974): *Les marxistes et la question nationale 1848-1914*, Maspero, Paris.
- Izteuta, P. (1981), Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco, Elkar, Donostia
- Onaindia, A. (1973): *Hombre de paz en la guerra*, Ekin, Buenos Aires.
- Otazu, A. (1973): *El igualitarismo vasco: mito y realidad*, Txertoa, Donostia.
- Poulantzas, N. (1970): *Fascisme et dictature*, Seuil, Paris
- , (1978): *L'état, le pouvoir, le socialisme*, PUF, Paris.
- Rodinson, M. (1975): *Sobre la cuestión nacional*, Anagrama, Barcelona
- Sartre, J. P. (1971): “Preface”, Halimi, Gisèle: *Le procès de Burgos*, Gallimard, Paris.
- Southworth, Herbert R. (1975): *La destruction de Guernica. Journalisme, diplomatie, propagande et histoire*, Paris; gaztelaniaz (1977): *La destrucción de Guernica. Periodismo, diplomacia, propaganda e historia*, Ruedo Ibérico, Paris.
- Vila-Sanjuán, S. (2003): *Pasando página*, Destino, Barcelona.
- Vilar, P. (1947): *Histoire de l'Espagne*, PUF, Paris.
- , (1962): *La Catalogne dans la Espagne moderne. Recherches sur les fondements économiques des structures nationales*, Paris
- , (1964-1968): *Catalunya dins l'Espanya moderna*, Ediciones 62, Barcelona.
- , (1971): “Patrie et Nation dans le vocabulaire de la guerre d'Indépendance espagnole”, *Annales historiques de la Révolution Française*, 206, octobre-décembre, Paris.
- , (1973): “Catalunya i Espanya davant la invasió francesa: resistència i ‘nació’, practica i conceptualizació”, *Assaigs sobre la Catalunya del segle XVIII*, Curial, Barcelona, 91-171 orr.
- , (1974): *Faire de l'histoire. Nouveaux problèmes*, Gallimard, 1974, Paris; “Historia marxista, historia en construcció”, in Jacques le Goff; Pierre Nora: *Hacer la historia. Nuevos problemas*, Laia, 1978, Barcelona.
- , (1976): *Crecimiento y desarrollo*, Ariel, Barcelona.
- , (1977): *Cataluña en la España moderna*, Crítica, Barcelona.
- , (1978): “Sobre los fundamentos de las estructuras nacionales”, *Historia 16*, Extra V, abril de 1978, 5-16 orr.; itzulpena, “Reflexions sur les fondements des structures nationales”, *La Pensée*, 1981, janvier-février, 46-64 orr.
- , (1978): *Historia de España*, Crítica, 1978, Barcelona;
- , (1980): *Iniciación al vocabulario histórico*, Crítica-Grijalbo, Barcelona.
- , (1982): “Le fait national: Appartenance et histoire”, in *Euskadi 1977-1982 (Egin, 1982, 152-153 orr.)*.
- , (1983): “Culture, Nation, Histoire”, RIEV, XXVIII, julio-diciembre, 251-260 orr.
- , (1983): “Procés històric i cultura catalana”, Departament de Cultura, Barcelona.
- , (1983): “Reflexions sobre els fonaments del fet català”, Els valencians davant la qüestió nacional”, Eliseu Climent Edit., Valencia, 167-206 orr.
- , (1984): “El concepte de Països Catalans vist per un historiador”, Els Països Catalans: Un debat obert, Eliseu Climent Edit., Valencia, 15-27 orr.
- , (1984): “Mouvement ouvrier espagnol et questions nationales: Quelques réflexions préliminaires”, *Mouvement Social*, juillet-septembre, 7-124 orr.

- , (1984): *Història d'Espanya*, Grijalbo, Barcelona.
- , (1985): "El hecho nacional", *Egin*, 7-04-1985.
- , (1985): "Historia, Nación y nacionalismo. Conversaciones con el historiador Pierre Vilar", in Intxausti, Joseba (zuz.): *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y proyecto*, EFA/Jakin, 527-540 orr. Nueva edición, (1998), Hiru, Hondarribia.
- , (1986): *La Guerra Civil española*, Crítica, Barcelona.
- , (1995): *Pensar historicament*, Eliseu Climent Edit., Valentzia; gaztelaniaz, *Pensar históricamente*, Crítica, Barcelona.
- , (1999): *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*, Crítica, Barcelona.
- , (1999): *El hecho catalán*, Hiru, Colección Sediciones, Hondarribia.